

## **EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN GARDENTASUNAREN, HERRITARREN PARTE HARTZEAREN ETA GOBERNU ONAREN LEGE-PROIEKTUA**

### **ZIOEN AZALPENA**

Lege honetan, Euskal Sektore Publikoaren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Legean bezala (zeina lege honen hainbat ataletan aipatzen den), jorratzen den gaiarekin —Administrazio Publikoa, oro har— berez lotuta dauden arautze-beharrizan guztiak barne hartzeko saiakera egiten da, eta, horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko egitura publikoaren antolamenduaren eta funtzionamenduaren kontzeptu-esparru bikoitzari koherentzia eman nahi zaio, erreferentziako esparru bat eskainiz, aplikagarria izan dadin, ildo orokorrean dagokienez behintzat, bai Autonomia Erkidegoko sektore publikoan, bai eta gainerako euskal administrazioetan ere, foru- zein toki-administrazioak barne.

Ildo horretatik, testu honen bidez, bereziki, eztabaida erabakitzailea sustatu nahi da gauza publiko deiturikoari buruz, herritarrek duten pertzepzioa hobetzeko, haren balioa handitzeko eta, finean, administrazio-kultura berri bat sortzen laguntzeko, garai hauek eskatzen dituzten paradigma berriak oinarri hartuta. Paradigma horiek lotuta daude gobernantza ona deitzen den horrekin, triangulu kontzeptual gisa ulertuta: gobernantzak, gardentasunak eta arazo publikoetan herritarrek izan behar duten parte-hartzeak osatzen dute triangulu hori, eta abiapuntutzat hartzen da horietako bakar batek ezin duela berak bakarrik funtzionatu edo iraun, beste biak alde batera utzita.

Horrela, ebaluazioa beharrezkoa da gardentasunari zentzua emateko, edukiak emateko, bestela erakusleihu huts bat baino ez bailitzateke izango. Gardentasuna, halaber, parte-hartzearen ezinbesteko premisa bat da; izan ere, administrazio lauso baten aurrean, debaterako oinarrizkoak diren datu eta elementurik ez luke izango, eta, hortaz, debatea hutsala izango litzateke. Eta, azkenik, bai gardentasuna bai herritarren parte-hartzea ezinbesteko tresna dira politika publikoen eragina neurtzeko benetako ebaluazio batean; ebaluazio hori osatugabea litzateke, are itxurazkoa ere, arau eta programa publikoen inguruko kontsulta zabalik egin gabe utziko balitz, edo erabilitako informazioaren ezinbesteko kontrastea ere egingo ez balitz. Horrek guztiak bermatu behar du erabiltzen diren datuak benetakoak direla, azterketa publikoaren mende egotean ematen den bermea daukatela, eta herritarren benetako hautemate eta lehenetsunekin bat datozela, haiek asetzerat bideratuta baitago politika publiko oro.

Lege berriaren oinarri dira Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10. artikuluko 2., 6. eta 24. paragrafoetan jasotzen diren eskumen eskusiboak, zeinek arautzen baitituzte bai Euskal Autonomia Erkidegoaren autogobernu-erakundearen antolamendua, araubidea eta funtzionamendua, bai zuzenbide substantiboaren espezialitateetatik eta Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko antolamendutik

eratortzen diren administrazio-prozeduraren arauak, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoaren beraren sektore publikoa ere, betiere Estatutuko beste arau batzuek eragiten ez dioten neurrian.

I. titulua, "Xedapen orokorrak", euskal sektore publikoaren funtzionamendua gidatu behar duten printzipio orokorrak finkatuz hasten da, Euskal Sektore Publikoaren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Legean aurreratutako printzipioak mahaigaineratuz eta esparru horretan zabalduz; halaber, "administrazio on baterako eskubidea" zehaztu eta garatzen du, eta, aipatutako legean zehazten den edukiarekin, bere egiten du Europar Batasuneko Funtsezko Eskubideen Gutunaren 41. artikuluan jasotzen den eskubide horren formulazioa.

II. titulua, "Politika publikoen plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa", lehendakariak definitutako Gobernu Programaren arabera Gobernuak egin beharreko "Gobernu Plana" zer den definituz hasten da, zeinaren helburua, dagokion artikuluan jasota dagoen bezala, honako hau baita, eta ez besterik: "Gobernu-ekintza denboran zehar kokatzea eta gizarteratzea, eta herritarrekiko konpromisoaren eta erantzukizunaren oinarriak ezartzea".

Pieza horretatik abiatuta, funtsezkoa bera, Administrazioaren zereginen artean txertatzen dira ebaluaziorako prozedura berri ugari (inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa, garapenaren jarraipena, emaitzen eta metatutako inpaktuen ebaluazioa, arau-multzoen inpaktuaren ebaluazioa...), eskura ditugun eredurik aurreratuenetan oinarrituta, testuan ere esaten den bezala, "gobernu-ekintza eta erabaki politikoak hartzeko prozesuak ordezkatu gabe eta datuen analisiaren bidez edo gizarteraren beharrian eta eskariei erantzuten dieten jardura-ildo alternatiboen proiektioak eginez, epe labur, ertain edo luzean izan daitezkeen ondorioak aurreikusi ahal izateko eta, horrela, ebaluazioaren emaitzek eta planifikazioaren oinarri diren datuek deliberazio- eta erabaki-prozesu sendoagoak ahalbidetu ditzaten, objektibotasunaren eta gardentasunaren printzipioak gauzatzuz".

III. tituluak, bestalde, oinarrizko legearen eskema jarraitzen du, eta, testuinguru honetan, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan garatzen du Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen funtsezko edukia. Lau kapitulutan banatzen da. Lehenengoan, ohar orokorrei buruzkoan, gardentasun-arloan betebeharrak dituzten subjektuak zein diren zehazten da, eta ez dira administrazio publikoak soilik; izan ere, subjektu pribatuak eta zuzenbide publikoko korporazioak ere informazioa ematera behartuta daude, eginkizun publikoak betetzen badituzte edo sektore publikoarekin interakzio bizia badute.

Publizitate aktiboari buruzko kapituluan, herritarrei modu proaktiboan helaraziko zaien informazio-sorta zabalaz gain, aipagarria da datuen irekiera eta berrerabilpena (open data). Euskal Autonomia Erkidegoa, aurreko legealdietan hasitako lanen eskutik, estatu mailan aitzindaria da gai horretan, nahiz eta oraindik badugun ibili beharreko bide bat aurretik, erreferentziakoak

diren herrialdeen ereduera iristeko (Erresuma Batua, Europa Iparraldeko herrialdeak eta Estatu Batuak, besteak beste).

Hirugarren kapitulua dator ondoren, informazio publikorako irispideari buruzkoa. Publizitate aktiboaren elementu osagarria da, eta, ildo horretatik, Legearen gardentasun-eskemarena ere bai, herritarrek aukera izan dezaten sektore publikoa osatzen duten erakunde guztiei aktiboki argitaratzen ez den informazioa ere eskatzeko.

Titulu hori, azkenik, zehapen-araubide zorrotz bati buruzko kapituluarekin amaitzen da. Arau-haustek tipifikatuta –diziplinazkoak zein administratiboak–, lege honetan ezarritako betebeharrak benetan betetzen direla bermatzea du xede, erakunde publikoek "erabateko publikotasunerako" egiten duten deia ez dadin geratu asmoen deklarazio huts batean.

Lehen aipatutako gobernantza onaren oinarritzko triangela osatuz, IV. tituluak, herritarren parte-hartzeari eta prozesu parte-hartzailei buruzkoa bera, ikuspegi malgua eta moldagarria hartzen du.

Alde horretatik, lehen kapitulu batean, gai orokorrak eta parte hartzeko prozeduren eta bitartekoen bermeak eta eskubide komunak ezartzen ditu. Izan ere, egun dauden eta etorkizunean sortu litezkeen parte hartzeko moduen kopurua, aniztasuna eta aberastasuna kontuan izanik, parte hartzeko edozein prozedurak bete behar dituen baldintzak eta oinarritzko bermeak ezartzea izan da aukera, parte hartzeko figuren katalogo itxi bat, beti amaitu gabea, eskaini beharrean. Horrela, batetik, aurrez aurre zein telematika bidez parte hartzeko bide berri eta berritzaileak gehitu ahal izango dira unean uneko gaitasun teknologikoen arabera, beharrezkoak diren bermeak murriztu gabe. Eta, bestetik, administrazioari aukera zabala emango dio erabakitzeko unean-unean zein den jarduera publiko bakoitzaren garrantziari, konplexutasunari edo neurriari hobekien egokitzen zaion bidea.

Baina, bestalde, "herritarren parte-hartzeari dagozkion eskubide zehatzei" eskainitako bigarren kapituluan, parte hartzeko bide edo bitarteko zehatzak ezartzen dira, eta aurreko bermeek horiei aplikatzeko modukoak izan behar dute. Atal honetan, bestetik, neurri aitzindari gisa, aipatu behar da herritarrei erregelamendu-ekimenak sustatzeko eskubidea onartzen zaiela, bai eta herritarren jardueretan Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak lankidetzara eskaini dezala eskatzeko eskubidea ere. Lehenengoak, gaur egun Herritarren Lege Ekimenari buruzko ekainaren 26ko 8/1986 Legean jasota dauden eskema eta bermeak baliatuz, haren ordeztu daitezkeena baztertu gabe, atea zabaltzen dio figura berritzaile horri; izan ere, horren bitartez, Jaurlaritzari aukera ematen zaio herritarren eskariak bere jardueran txertatzeko, betiere haien egokitasunagatik edo daukaten sostengu zabalagatik aintzat hartzea merezi baldin badute, baina politika publikoen gainean Jaurlaritzak duen erabakitzeko eta zuzentzeko azken gaitasunari uko egin gabe. Bigarrenak ikuspegi berritzaile eta osagarri bat ematen du, herritarrei ematen baitie ez bakarrik lege edo arauak egiteko orduan ekimena hartzeko ahalmena, baizik eta baita Administrazioa gonbidatzeko aukera ere, parte har dezan eta

lankidetzan jardun dadin herritarren artetik sortzen diren helburu sozialeko eta irabazi-asmorik gabeko ekimen eta jarduera pribatueta, haien jabe egin gabe.

Azkenik, V. tituluko artikulua datoz, "gardentasunerako eta gobernu onerako organismo eta erakundeei" buruzkoak.

Titulu horretan sartzen dira, hortaz, batetik, Gardentasunaren Euskal Agentzia – Gardena sortzea, gardentasun-arloan lege hau behar bezala betetzen dela zaindu behar duen erakunde espezializatu. Ildo horretatik, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 24.6 artikuluan eta laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorri errekurtsoak ebatzi behar dituen organo gisa definitzeaz haratago, ikuspegi zabal batetik eraten da Agentziaren lana, estatu mailan Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak egiten duenaren bidetik, euskal sektore publikoko erakundeei aholku emanez publizitate aktiboari, datuak irekitzeari eta informazio publikoa eskuratzeari dagokienez, eta herritarrei informazioa emanez gardentasunarekin eta informazioa lortzearekin lotuta dituzten eskubideen inguruan, baina berezitasun bat erantsita, kasu honetan euskal espezifikotasunei erantzun behar baitie, hiru gobernu-mailatan jardunez, eta independentziaz eta objektibitatez jardun behar du beti, bere eginkizunak betetzeko orduan inolako aginduren mende egon gabe.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek eta zenbait interesen ordezkari diren taldeek parte hartzeko eta lankide izateko Erregistroa ere sortzen da, bi helbururekin: batetik, herritarren parte-hartzea sustatu nahi du, herritarrentzako edo talde interesdunentzako lehentasunezko bideak edo alerta goiztiarreko eskubideak ezarri. Eta, bestetik, aurrekoaren osagarri gisa eta Europako Parlamentuaren eta Batzordearen Gardentasunaren Erregistroaren eta antzeko beste organismo batzuen lortzari jarraituz, herritarrei informazio zuzena ematen die, lege honetan ezarritako parte-hartze eskubideen bidez euskal sektore publikoaren erabakitze-prozesuetan zilegitasunez eragin nahi duten presio-taldeei edo "lobbiei" eta beste interes-talde batzuei buruz, hainbat oinarriko galderari erantzunez, hala nola zer-nolako interesak dituzten, nor defendatzen dituen eta zenbateko aurrekontua duten.

Azkenik, "Gobernu Irekiaren Plataforma" aurreikusten da testuan, zeinari eginkizunak esleitzen zaizkion gardentasunaren ikuspegitik, Gardentasun Atari baten lanak egiteko, herritarren eskura jar dezan aurreko artikuluetan aipatzen den bere jardun-eremuari buruzko informazio guztia, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 10. artikuluan ezarri bezala. Beste ikuspegi batetik ere esleitzen zaizkio eginkizunak, eginkizun zabalagoak emanez; esaterako, Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren eta herritarren arteko interakziorako gune iraunkorra izatea, ekintza publikoan kudeaketa partekatura eta erantzukidera bideratua, non gardentasun, parte-hartze eta kontu-ematearen printzipioak gauzatzen diren, aurreko proiektuetan ("Irekia", kasurako) hasitako lanari jarraipena emanez.

Lege-testuaren amaieran hainbat xedapen daude –gehigarriak, iragankorrak eta azkenak–, testuaren aplikazioa euskal sektore publiko osoa eratzen duten gainerako gobernu- eta administrazio-mailetara doitzeko; hartara, herrialdeko erakunde guztietan osatuko da gobernu onaren eskema, eta araua ordenamendu juridikoan modu harmoniatsuan txertatuko dela bermatzen da; egutegi bat ere jasotzen da, ebaluazio-kontuetan hainbat obligazio aplikatzeko, eta indarrean dauden beste testu batzuetan lege-aldaketak egin eta egungo araudira egokitzeko.

## **I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK**

### **1. artikulua.- Xedea**

Lege honen xedea da, Euskal Sektore Publikoa osatzen duten erakunde eta entitateetan eta, zehazki, Autonomia Erkidegoko sektore publikoan, zabaltzea eta indartzea administrazio-jardueraren gardentasuna eta publikitatea, gobernu ona, informazio publikora iristeko eskubidea baliatzeko baldintzak, politika publikoen ebaluazioa eta baita herritarren parte-hartzea ere zuzenean edo zeharka interes publikoak diren diseinuetan eta erabakietan.

### **2. artikulua.- Helburuak**

Lege honek helburu hauek lortu nahi ditu:

- a) Herritarrei aditzera ematea zeintzuk diren gobernuaren plangintza eta konpromiso estrategikoak, publikotasun aktiboaren printzipioa sendotuz.
- b) Lege honen arabera garrantzitsuak diren datu guztiak formatu irekian argitara daitezen sustatzea.
- c) Sustatzea herritarrak irispidea izatea, hala Administrazio Orokorrak duen informaziora, nola hari lotutako edo haren menpeko organismo eta entitateen informaziora.
- d) Politika publikoen ebaluazioa sustatzea, ebaluatzeko betebeharrari eta ebaluazio horren emaitzak aditzera emateko betebeharrari dagokienez.
- e) Gai publikoetan erantzukidetasunez parte hartzeko kultura eta ohiturak sortzen laguntzea.
- f) Zerbitzu publikoek behar bezala funtzionatzen dutela bermatzea.
- g) Horrela, bada, zerbitzuak ematean, balio publikoa sortzen lagunduko duten tresna eta prozesuak ezartzea.

### **3. artikulua.- Aplikazio-eremua**

1. Lege honetan jasotako aurreikuspenak, lehenik eta behin, honako hauei aplikatuko zaizkie:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko organismo autonomo, zuzenbide pribatuko erakunde publiko, sozietate publiko, fundazio eta partzuergoei; Euskal Sektore Publikoaren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Legean definitutakoa hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikotzat.

c) Goiko horiek zuzenean edo zeharka partaidetza duten ente, sozietate edo pertsona juridikoei.

2. Aurreko atalean aipatutako subjektuez gain, lege hau entitate pribatu eta partikularrei aplikatzekoa ere bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoarekin duten harremanean, legean bertan ezartzen den moduan.

3. Halaber, legeak gai horietan xedatzen dituen printzipio orokorrak aplikagarri izango zaizkie, xedatu bezala eta beren antolaketa-arauek ezartzen duten moduan, Euskal Sektore Publikoa osatzen duten erakunde guztiei, halakotzat hartuz euskal administrazio publiko guztietako sektore publikoek osatzen dutena, barne direla Administrazio Orokorra, Lurralde Historikoetako Foru-Administrazioak eta Toki-Administrazioak, dagokien Administrazio instituzionala eta haien mendeko eta haiei atxikitako gainerako erakunde instrumental guztiak.

4. Euskal Sektore Publikoaren zati dira orobat, aurreko atalean ezarritako ondorioetarako, Eusko Legebiltzarra, Batzar Nagusiak, toki-korporazioak eta Euskal Herriko Unibertsitatea, bai eta maila instituzional bakoitzaren gobernuak eta organo parte-hartzaile, aholku-emaitzaile eta independenteak eta erakunde horiei aholku ematekoak ere. Erakunde eta organo horiek beren araudi propioaren eta lege honetan ezarritako printzipioen arabera gidatzen dira.

### **4. artikulua.- Funtzionamenduaren eta herritarrekiko interakzioaren printzipioak**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak herritarren zerbitzura bideratuko du bere jarduna.

2. Funtzionatzeko printzipio gidari hori gauzatzeko, administrazio publiko guztientzat aplikazio orokorrekoa den arautegiko printzipioez eta beren barne-funtzionamendua arautzen duten printzipioez gain, Euskal Sektore Publikoaren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Legean ezarrita dagoen bezala, printzipio hauek aplikatu behar dituzte sektore publiko horretan sartuta dauden instituzioek eta entteek, herritarrekiko interakzioan:

a) Legitimitate demokratikoa: izateko arazoia herritarrek dira, eta, horregatik, herritarren beharrezan antzeman, kontuan hartu eta asetzerak bideratzen du bere jardun publikoa, beti interes publikoa lortu nahian eta gizarteari zerbitzu emateko borondatea ezaugarri duela.

b) Jasangarritasuna: aurrerabide soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa lortzera bideratuko du bere jarduerak.

c) Elkartasuna: premiarik handiena dutenekiko elkartasun-printzipioaren arabera jokatu du, hori baita kohesioaren eta oreka sozialaren oinarria, eta, horretarako, gizarte-bazterketari aurre egiteko behar diren bitarteko guztiak jarriko ditu.

d) Aurrea hartzea: ahal duen heinean, herritarren arazoei eta eskaerei aurre hartu behar die, bai politikak taxutzerakoan eta bai herritarren beharrei erantzuna ematerakoan.

e) Hizkuntza-normalkuntza: administrazio-jardueran euskararen erabilera normaltzea bultzatuko du.

f) Politika eta zerbitzuen programazioa, plangintza, kontrola eta ebaluazioa: tresna egoki eta nahikoak sortuko ditu programazio-prozesuak, politiken plangintza, emaitzen ebaluazioa eta kontrola, eta ondoren herritarrei horren guztiaren berri ematea txukun egingo direla bermatzeko.

g) Erantzukizuna kudeaketan: argi eta espresuki adieraztea herritarrekiko dituen betebeharrak, bere kudeaketaren berri emanez, eta, hala badagokio, bere erabakiek eta jarduerak dakartzaten erantzukizunak bere gain hartuz.

h) Objektibitatea: bere politiken eta zerbitzuen emaitzak adierazle objektibo, neurgarri eta Europa mailan homologagarri direnen arabera neurtzea, kudeaketa kalitatezkoa dela egiaztatzeko.

i) Koherentzia: etengabe, benetan eta egonkortasunez emango ditu zerbitzuak, herritarrek ezagutzen eta onartzen dituzten egoerak beharrik gabe apurtu edo aldatu gabe.

j) Parte-hartzea eta lankidetzak: bere politikak taxutzen eta bere zerbitzuak kudeatzen dituenean, herritarrei bermatu egingo die individualki nahiz kolektiboki gai publikoetan parte hartzeko, lankidetzan aritzeko eta inplikatzeko aukera, genero-berdintasunaren ikuspegia txertatuz eta, oro har, pertsonen edo kolektiboaren heterogeneotasuna kontuan hartzen duen ikuspuntu inklusiboa bultzatuz.

k) Gardentasuna: gardentasunez jardungo du, eta hark hartzen dituen erabakiei eta erabakien erantzuleei, erabaki horien deliberazio-prozesuei eta zerbitzuen antolamenduari buruzko informazio garrantzitsua ezagutu ahal izango dute herritarrek.

l) Publizitate aktiboa: aldizka eguneratu eta publiko egingo du lege honetan dagokion tituluan aipatzen den informazioa, gardentasuna bermatzeko.

m) Irisgarritasun-printzipioa: Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak irisgarritasun unibertsala betetzen dela bermatuko du bere bulegoetan, bere politiken diseinuan eta bere jarduera guztietan.

n) Soiltasuna eta ulergarritasuna: izapideen konplexutasuna murriztuko du, eta arau eta prozedura argi eta errazak edukitzeko bidea emango du, administrazioa herritar guztiengana iristea ahalbidetzen duen hizkera ulergarria erabiliz.

ñ) Neutraltasun teknologikoa: teknologia eta informatikaren esparruan estandar ireki eta neutralak erabiltzeko eta sustatzeko apustua egingo du, eta, ahal den guztietan, soluzio ireki, bateragarri eta berriz erabiltzeko modukoak hautatuko ditu aplikazio eta garapen informatikoak kontratatzeko, bere funtzionamenduan kode irekiko softwarea erabiliz, hala badagokio.

o) Berrikuntza publikoa: mekanismo eta prozedura berritzaileak bultzatuko ditu, batez ere teknologia berriak erabiliz eta horien funtzionamendua eta egitura etengabe beharizan berrietara egokituz.

p) Etengabeko hobekuntza: etengabeko ebaluazioko prozesuak erabiliko ditu, gabeziak antzeman eta konpontzeko eta, horrela, herritarrei zerbitzu eraginkorrak emateko.

## **II. TITULUA.- POLITIKA PUBLIKOEN PLANGINTZA ETA EBALUAZIOA**

### **LEHENENGO KAPITULUA.- Gobernu-ekintzaren plangintza, aurretiazko ebaluazioa eta informazioa**

#### **5. artikulua.- Gobernu-plana**

1. Gobernu-ekintza denboran zehar kokatzeko eta gizarteratzeko, eta herritarrekiko konpromisoaren eta erantzukizunaren oinarriak ezartzeko, Eusko Jaurlaritzak gobernu-plan bat prestatuko du legegintzaldi bakoitzean, lehendakariak zehaztutako gobernu-programaren arabera. Eduki irekia izango du, eta honako hauek bilduko ditu:

- a) Lortu nahi diren helburu estrategikoak.
- b) Lortzeko behar diren jarduerak eta baliabideak.
- c) Lortzeko behar den denboraren balioespena.
- d) Plana betearazteko erantzukizuna duten organoak.
- e) Planaren segimendua eta ebaluazioa egiteko adierazleak.



2. Aurreikusitako jardueren artean, Gobernu Plana osatuko duten lege-proiektuak, plan estrategikoak eta jarduera garrantzitsuak identifikatu beharko dira.

3. Lege honen ondorioetarako:

a) Herritarren beharrian edo arazo nagusiei erantzuteko asmoz egiten diren eta gobernuaren aurreikuspenetan ezarritako lehentasun politikoei lotuta dauden planak dira plan estrategikoak. Sailarteko edo erakundearteko koordinazioa edo jardun publikoan berrikuntza-arrastoa uzten duen ekintza behar izan dezakete, eta, gainera, emaitzen eta eraginaren segimendu zehatza eta ebaluazioa eskatzen dute.

b) Jarduera garrantzitsuak ekimen mota desberdinak dira. Herritarren lehentasunetan edo lehentasun politikoetan dute jatorria, eta berez aurrerapen kualifikatuak dira gobernuak formulatutako konpromisoetan. Besteak beste, honako hauek izan daitezke: arau-xedapenak, antolamendu-aldaketak, inbertsio-proiektuak edo programa esperimentalak.

4. Gobernu Plana Eusko Legebiltzarrerara igorriko da, hark planaren berri izan dezan, eta, horrez gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta administrazioak erabiltzen dituen euskarri guztietan argitaratuko da –Gobernu Irekiaren Plataforman, bereziki–. Horretarako, informazio horren bertsio publikoak egingo dira, herritarrek erraz eskuratzeko modukoak.

## **6. artikulua.- Lege-aurreproiektu, plan estrategiko eta jarduera garrantzitsuen inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa, eta esku-hartze publikoen beste ebaluazioak**

1. Inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa egingo zaie Gobernu Planeko lege-aurreproiektu eta plan estrategiko guztiei, bai eta Gobernu Planean hala zehaztuta duten jarduera garrantzitsu guztiei ere. Ebaluazio horretatik salbuetsita geratzen dira lege-aurreproiektu hauek:

a) Baliabideak banatzeko metodologia ezartzen dutenak eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen finantzaketan egin beharreko ekarpenak ezartzen dituztenak.

b) Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak onartzeko, kreditu gehigarriak emateko, konpromiso-kredituen baldintzak aldatzeko eta aurrekontuak likidatzeko direnak.

2. Aurreko paragrafoan adierazitako nahitaezko ebaluazioak egiteaz gain, Eusko Jaurlaritzak, urtero, ebaluatu beharko diren esku-hartze publikoen zerrenda bat ezarriko du. Probabilitate, garrantzi edo hedapen handieneko eraginak izan ditzaketen esku-hartzeak, ziurgabetasun handiena ekar dezaketen eraginak izan ditzaketen esku-hartzeak eta arazo garrantzitsuenei aurre egiten dieten esku-hartzeak ebaluatuko dira, gutxienez. Horretarako, Legebiltzarrak berak ere egoki deritzon proposamenak egin ahal izango ditu.

3. Gainontzeko administrazio-jarduerari dagokionez, euskal sektore publikoko sailek edo erakundeek berek ebaluatu ahal izango dituzte beren eskumenekoak diren eta ebaluatu beharrekotzat jotzen dituzten esku-hartze publikoak, betiere ez baldin badago erabakiak hartzeko orduan oinarri gisa har dezaketen aurretiazko ebaluaziorik edo daturik.

## **7. artikulua.- Lege-proiektu, plan estrategiko eta jarduera garrantzitsuen inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa: definizioa eta ebaluatzeko prozedura**

1. Lege honen arabera, hauxe izango da inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa: modu zehatz eta ordenatuan eskuratutako informazioa behatu, neurtu, aztertu eta interpretatzeko prozesu sistematikoa, politika publikoko aukera desberdinek izan ditzaketen kostuen eta onura ekonomiko, sozial eta ingurumenekozen zenbatespen kualitatiboa eta, ahal den heinean, kuantitatiboa egitera bideratua –diseinuaren, praktikan jartzearen eta eraginaren ebidentzietan oinarrituz proposamenak eta balorazioak egiteko–, eta organo eskudunak hartu beharreko erabakiari buruzko txostena ematen duena. Ahal bada, aurretiazko ebaluazioak kontuan hartuko du aurreikusitako esku-hartze publikoek indarrean dauden beste esku-hartzeekin edo egitekoak direnekin daukaten interakzioa eta esku-hartze horiek, oro har hartuta, daukaten efektua.

2. Esku-hartze publikoa proposatzeko edo gauzatzeko eskumena duen sailak zehaztuko du, hasiera batean, ebaluazio bakoitzaren irismena, sakontasuna eta analisi-maila, eta hark egingo du ebaluaziorako beharko den denboraren aurretiazko zenbatespena, aurreko artikuluan adierazitako irizpideen arabera, egin beharreko ebaluazioa barne-ebaluazioa edo kanpo-ebaluazioa den kontuan hartuta eta lege honek politika publikoen plangintza, kudeaketa eta ebaluazioaren sustapenari buruz adierazten duena betez. Nolanahi ere, administrazioak balia dezakeen aukera-sorta aurreikusi behar du ebaluazioak. Aukera horien artean egongo da, beti, dagoeneko badiren egoeretan ez esku hartzeko eta egoera horiek ez aldatzeko aukera.

3. Ebaluazio-prozesuak gardena, ulergarria eta publikoki aztertzeko modukoa izan beharko du.

4. Batzorde bat eratuko da aurre egin beharreko arazoak edo proiektatutako ekintzak ukitzen dituen sail guztietako ordezkariekin, esku-hartze publikoa proposatzeko edo gauzatzeko eskumena duen saila buru duela, eta batzorde horrek ikuskatu eta bultzatu beharko du prozedura. Era berean, batzorde horri dagokio inpaktuaren txostena onartzea eta, beharrekotzat jotzen badu, ebaluazio sakonagoa egin dadila proposatzea.

5. Inpaktuaren txostenak argi eta garbi adieraziko ditu honako hauek: eraginak zein gizarte- eta lurralde-eremutan nabari litezkeen, aurreikuspenen arabera eraginek denboran zehar nolako bilakaera izango duten, aurreikusitako ondorio positiboak edo negatiboak kalkuluen arabera zein denbora-epetan ikusiko diren, eta zein izango litzatekeen emaitza eta eragin errealean segimendua eta ebaluazioa egiteko oinarritzat balioko lukeen epea,

segimendua egin beharko balitz. Ondorengo artikuluetan jartzen duenaren arabera egingo da hori guztia.

## **8. artikulua.- Gobernu Planaren garapenaren segimendua**

1. Gobernu Planean aurreikusitakoaren arabera, Jaurlaritzak segimendu-dokumentu bat onartuko du, sei hiletik behin lege-proiektuen kasuan, eta urtean behin plan estrategiko eta jarduera garrantzitsuen kasuan. Dokumentu horretan zehaztuko dira horietako bakoitzaren aurrerapen-maila eta, bakoitza gauzatzen doan heinean lortutako aurrerapenen analisia ikusita, planifikatutakoari egin nahi zaizkion aldaketak, horrela hobekuntzak sartzeko eta aktibatuta dauden bitartekoak birbideratzeko. Esate baterako, sartutako edo baja emandako langileak edo baliabide materialak eta aldi baterako birprogramazioak adierazi behar dira.

2. Dokumentu horiei buruzko informazioa Gobernu Planarentzat ezarritako modu eta baldintza berberetan emango da.

## **BIGARREN KAPITULUA.- Politika publikoen emaitzen eta eragin metatuen ebaluazioa**

### **9. artikulua.- Emaitzen eta eragin metatuen ebaluazioa**

1. Hauxe da emaitzen eta eragin metatuen ebaluazioa: politika publikoa gauzatu ondoren egiten den ebaluazioa, politikaren egokitasunaren, eraginkortasunaren, efizientiaren, inpaktuaren eta iraunkortasunaren azterketari begiratzen diona, plangintzan ezarri ziren helburuak kontuan hartuz.

2. Erantzukizun-arlo bakoitzean, arlo horretako politika taxutzeko eta gauzatzeko eskumena daukan sailak izango du, bere bitartekoen bidez edo behar diren kontratazioak eginda, emaitzen eta eragin metatuen ebaluazioa egiteko eta onartzeko eskumena.

3. Emaitzen eta eragin metatuen ebaluazioa egingo zaie Gobernu Planean inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa behar dutela ezarrita daukaten esku-hartze publikoei, esku-hartzea erabat gauzatzen denean edo harentzat zenbatetsitako denbora-atalasea betetzen denean. Ebaluazioen denbora-aurreikuspena Gobernu Planean sartuko da. Era berean, abian diren esku-hartze publikoen emaitzak eta inpaktuak ebaluatuko dira, betiere esku-hartze horien orde bestek batzuk ezarri nahi badira.

4. Horrez gain, sektore jakinetan ondorioak dituzten politika publikoen multzoek izandako emaitzak eta eragin metatuak ebaluatuko dira aldian-aldian. Urtero ezarriko da zer ebaluazio egin behar diren, eta, horretarako, Legebiltzarrak berak ere egingo ditu proposamenak.

5. Emaitzen ebaluazioa egiteko, oinarritzat hartuko dira dagoeneko badauden inpaktuaren aurretiazko ebaluazioak eta garapen eta segimenduaren ebaluazioak, bai eta lege honetan plangintzarako eta ebaluaziorako aurreikusita

dauden tresnetatik eratorritako gainontzeko informazio baliagarri eta eskuragarria ere. Horretarako, geroko inpaktua ebaluatu behar zaien arau-xedapenen aurretiazko ebaluazioetan bertan ezarriko dira ebaluazio hori egiteko oinarriak. Helburu horrekin, efektu eta ondorioak berrikusteko obligazioa ezartzen duten klausula edo xedapenak eduki ahal izango dituzte arauak, eta, ondorioz, haien testua aldatzeko obligazioa ezartzen dutenak.

6. Emaitzen ebaluazioaren gutxieneko edukiaren barruan (eduki hori aldakorra da jardueraren edo politika publiko bakoitzaren izaera edo formaren arabera) helburuen eta aurretiko aurreikuspenen betetze-maila sartu behar da, bai eta gerta litezkeen behin-behineko desbideratzeen arrazoiak eta herritarrek jarduerari buruz duten iritzi eta balorazioa ere. Horrez gain, kontuan hartu behar dira garai berean edo aldi berean beste esku-hartze publikoekin izandako interakzioak, emaitzetan eragina eduki ahal izan dutenak, ahal den guztietan batzuen eta besteen ondorioak bereiziz.

## **10. artikulua.- Sinplifikazio administratiboa eta kargak arintzea**

1. Metatutako eraginen ebaluazioak egingo dira, indarrean dauden politika publiko guztietatik eratorritako karga administratiboa aldi-aldi eta sektorialki aztertzeko. Ebaluazio horien helburua izango da gehiegizko izapide-multzoak arrazionalizatzea eta gutxitzea, izapide berri bakoitzak sektore hartzailearentzat edo hartzaileentzat edo interes orokorarentzat dakarren onuraren eta karga administratibo berriek eragiten duten kostuaren arteko harremanaren ikuspuntutik.

2. Helburutzat izapidetze administratiboak arintzea duten jarduera orokorrak diseinatu eta martxan jarriko dira, prozesuak eta prozedurak berriz diseinatu eta sinplifikatzea eta karga administratiboak gutxitzea ahalbidetzen duten tresna hauek erabiliz: antolamendu-tresnak, kalitate-tresnak, Administrazio Elektronikoko tresnak eta tresna juridikoak.

## **11. artikulua.- Arau-multzoen eraginen ebaluazioa**

1. Sektore jakinetan ondorioak dituzten arau-multzoek izandako eragin metatuen emaitzak ebaluatuko dira aldi-aldi.

2. Lege-testuak sinplifikatu, kodifikatu, bat egin eta bateratuta gehiegizko arau-multzoak arrazionalizatzea eta gutxitzea izango da ebaluazio horien helburua, edo manu eta lege zaharkituak kenduta lege-bolumena txikitzea, arauen kalitatea, argitasuna, zehaztasuna eta ulergarritasuna bermatzeko xedez.

3. Urtero ezarriko da zer ebaluazio egin behar diren, eta, horretarako, Legebiltzarrak berak ere egingo ditu proposamenak.

## **HIRUGARREN KAPITULUA.- Politika publikoen plangintza eta ebaluazioa eta prozesu horien publikizatea sustatzea**

### **12. artikulua.- Politika publikoak planifikatu eta ebaluatzeko kultura**

1. Lege honetan deskribatutako funtzionamendu-printzipioaren eta herritarrekiko interakzioaren printzipioa gauzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak bere antolamenduan plangintzaren eta ebaluazioaren politika publikoak bultzatzen dituzten neurriak jarriko ditu. Horretarako, bere zerbitzurako langileak informatu, sensibilizatu eta prestatuko ditu, ezagupen-sareak eta lankidetzak sortuko ditu, eta ezarpena errazten duten tresna teknikoak partekatu edo landuko ditu.

2. Zeregin hori gauzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak erabiltzen dituen parametro, adierazle, programa, tresna informatiko eta gainontzeko baliabide analitikoak ahal dela homologagarriak izango dira estatu- eta Europa-mailan erabiltzen dituztenekin, horrela informazio-truke handiagoa lortzeko eta politika-maila desberdinetan erabilitako politikek dauzkaten lurralde-mailako eraginak hobeto ebaluatzeko.

### **13. artikulua.- Ezagutza zientifikoa eta aditua politika publikoen ebaluazioan sartzea**

1. Politika publikoak ebaluatzeko eta planifikatzeko prozesuetan ezagutza tekniko eta zientifiko aplikagarria sartuko da, gobernu-ekintza eta erabaki politikoak hartzeko prozesuak ordezkatu gabe eta datuen analisiaren bidez edo gizartearen beharrezan eta eskariei erantzuten dieten jardun-ildo alternatiboen proiektuak eginez, epe labur, ertain edo luzean izan daitezkeen ondorioak aurreikusi ahal izateko eta, horrela, ebaluazioaren emaitzek eta planifikazioaren oinarri diren datuek deliberazio- eta erabaki-prozesu sendoagoak ahalbidetu ditzaten, objektibotasunaren eta gardentasunaren printzipioak gauzatu.

2. Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak honako hauek erabiliko ditu, batik bat: bere antolamenduaren ahalmen tekniko eta zientifikoak eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden instituzio akademikoak edo ikerketa-instituzioak.

3. Dena delako gaiari buruzko ezagutza tekniko edo zientifiko garrantzitsu desberdinak identifikatzeko ere, aipatutako ahalmen tekniko eta zientifikoez baliatuko da, batik bat; baita kanpoko aholkularitza behar denean aholkularitza hori aukeratzeko irizpideak lantzeko ere (kontratazio publikoko arautegi aplikagarriak kasu bakoitzerako ezartzen duenaz gain erabili beharko dira irizpide horiek).

Irizpide horien artetik, bereziki honako hauek hartuko dira kontuan: teoria zientifiko gatazkatsu desberdinen garrantzia, sinesgarritasuna, euskarri empirikoa eta barne-baliagarritasuna edo sendotasuna; eta teoria horietatik erabil daitezkeena aplikagarria den proiektatutako gobernu-politikaren kasu zehatz eta testuinguru espezifikoan.

4. Era berean, administrazioak, bere aurrekontu-aukeren barruan, politika publikoen diseinurako behar diren erabakiak hartzeko aukera edo arrisku garrantzitsuak aurkitzen laguntzen duen ikerketa sustatuko du.

#### **14. artikulua.- Ebaluazioaren publizitatea**

1. Lege honetan aipatutako publizitate aktiboaren printzipioa aplikatuz, eta kapitulu honetan ezartzen denaren arabera egin beharreko ebaluazioei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorak honako hauen berri emango die herritarrei, modu irisgarrian: bai ebaluazio-prozesuaren berri, eta bai prozesu horretatik lortzen diren emaitzen berri, indarrean dagoen legeriak ezarritakoak izango direlarik muga bakarrak. Ebaluazio guztiak Gobernu Irekiaren plataforman argitaratuko dira gutxienez.

2. Lege honetan jasotzen den politika publikoen ebaluazioan eta zerbitzu publikoen kalitatearen ebaluazioan parte hartzeko eskubidearen arabera, politika publikoak ebaluatzeko prozesu bakoitzean, herritarrei entzuteko aldi bat irekiko da, eta, horrela, parte hartzeko aukera emango zaie herritarrei. Kontsulta eta entzunaldi publiko horien emaitza ebaluazio-dokumentuaren edukiaren barruan sartu beharko da beti. Izapide hori egiten ez bada, ez egiteko arrazoiak eman beharko dira.

3. Argitaratu egin beharko dira Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak urtero akordio bidez ebaluatu egin behar direla erabakitzen duen esku-hartze publiko guztiak.

### **III. TITULUA.- EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN GARDENTASUNA.**

#### **LEHENENGO KAPITULUA.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN ETA BESTE SUBJEKTU BATZUEN GARDENTASUNARI BURUZKO OHAR OROKORRAK.**

#### **15. artikulua.- informazio publikoaren gardentasuna eta kalitatea.**

1. Gardentasuna da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak herritarrekin dituen harremanetarako erabili behar duen funtzionamendu-printzipioa, eta, printzipio horren arabera, herritarren eskura jartzen den informazioak kalitate handienekoa izan behar du. Hau da, egiazkoa, argia, koherentea, denboran egokia, materialki nabarmena, egituratua, zehatza, ulergarria, osoa, segurua, erraz erabiltzeko modukoa, kanal anitzekoa, konparagarria, formatu anitzekoa, elkarreragingarria eta berrerabilgarria izan behar du, legeak ezartzen duen baldintzetan.

2. Kalitatea eta informaziorako irispidea izango dira lege honetan aurreikusitako ebaluazio-tresnen helburu.

3. Lege honen arabera, honela ulertu behar ditugu honako hauek:

a) Gardentasuna: administrazio-jardunaren printzipio honek informazio publikoa aktiboki argitaratzeko betebeharra ezartzen die botere publikoei, eta

administrazioaren esku dagoen informazio publikoa eskuratzeko bidea ematen die herritarrei, lege honetan eta indarrean dagoen legeri aplikagarrian ezarritako mugen barruan.

b) Informazio publikoa: lege honen aplikazio-eremuak eragindako botere publikoek, beren eginkizunak betetzerakoan, egindako edo eskuratutako informazioa, edukia edo agiria, haien esku dagoena eta edozein formatu, euskarri eta adierazpidetan dagoena. Halaber, informazio publikotzat hartuko da zerbitzu publikoak ematen dituzten entitateek edo administrazioaren eskumenak edo funtzio publikoak edo administrazioaren jabetzakoak direnak betetzen dituzten beste entitate batzuek sortutako informazioa, betiere beren jarduera publikoan edo jarduera publiko bat egiteko sortu eta lortu bada.

c) Egiazkotasuna: printzipio honen arabera, informazio publikoak egiazkoa eta zehatza izan behar du, eta benetakotasuna, fidagarritasuna, osotasuna, erabilgarritasuna eta trazabilitatea egiaztatuta duten dokumentuak izan behar ditu iturri.

d) Erraz irakurtzeko materialak: testuen sinplifikazioa bultzatzen duten nazioarteko estandarren arabera egindakoak, hizkera xumea eta zuzena, eduki eskuragarriak eta edukia eta forma bateratzen dituen diseinua dutenak, herritar guztientzako modukoak izan daitezten.

e) Datuak irekitzea: datuak erabilgarri jartzea formatu digitalean, web bidez eskuratzeko moduan eta era estandarizatu eta irekian, ulertu eta berrerabili ahal izateko moduko egitura bati jarraituz, eta, hala, hirugarren batzuek datu horietatik eratorrita egindako produktuen bidez balioa eta aberastasuna sortzea.

f) Berrerabiltzea: pertsona fisikoek edo juridikoek lege honetan xedatutakoaren arabera informazioa ematera behartuta dauden subjektuen esku dauden dokumentuak erabiltzea, betiere erabilera hori ez bada administrazio-jarduera publiko bat. Berrerabiltzearen kontzeptutik kanpo geratzen dira administrazioek eta sektore publikoko erakundeek beren eginkizun publikoak betez egiten dituzten dokumentu-trukeak.

## **16. artikulua.- Konpromiso orokorrak**

1. Gardentasunaren printzipioak orobat eskatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan sartuta dauden erakunde eta enteek aldian-aldian aktiboki informazio eguneratua argitaratzea, baldin eta horren berri izatea garrantzitsua bada beren jardueraren gardentasuna bermatzeko, eta, batik bat, beren jardun publikoan duten funtzionamendu, kontrol eta herritarren lankidetzari buruzko informazioa; hartara, herritarrek jakin ahal izango dute zer erabaki hartu diren, nola, zerbitzuak nola antolatzen diren eta zein diren jardueren erantzuleak.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa behartuta dago aldian behin informazio eguneratua argitaratzera. Informazio instituzionala, antolamenduarekin zerikusia duena, plangintzari buruzkoa, ebaluazioari

buruzkoa, garrantzi juridikoa duena, ekonomikoa, aurrekontuetakoa eta estatistikoa argitaratu behar ditu, eta informazio horren barruan sartzen da aplikatu beharreko oinarrizko legeriak eta lege honek exijitzen dutena, bai eta sektore bakoitzeko legeek exijitzen dutena ere. Arreta berezia jarriko zaie kontratu-prozedurei, langileak hautatzeko prozesuei eta langileak kontratatzekeo zerrendei.

3. Aurreko atalean aipatzen den informazioa eskuragarri egongo da, gutxienez, lege honetan ezarritako Gobernu Irekiaren Plataforman, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateen egoitza elektronikoetan edo web orrietan eta horretarako sortzen diren Gardentasun Atarietan. Halaber, bideak jarriko dira aurreko bitarteko horietan jasotako informazioa ezagutza informatikorik edo internetera konektatzeko aukerarik ez duten desgaituengana hel dadin, eta aplikazio informatiko mugikorrek edo etorkizunean ager daitezkeen beste bitarteko teknologiko batzuk erabili ahal izango dira.

4. Horrela argitaratutako informazioak lege honetan eta garatuko den araudian ezarritako kalitate-estandarrak beteko ditu, eta argibideak emango ditu jakiteko nola antolatuta dagoen, informazio hori eta beste informazio batzuk nola eskura daitezkeen eta herritarrek zein prozesutan parte har dezaket.

## **17. artikulua.- Herritarren eskubideak eta betebeharrak gardentasunaren arloan.**

1. Herritarrei honako eskubide hauek aitortzen zaizkie, lege honen arabera informazioa ematera behartuta dauden subjektuekiko harremanetan:

a) Lege honetan ezarri bezala modu aktiboan argitaratu den informazio publikoa ezagutzea eta hartzea, eta informazioa ematera behartuta dauden subjektu publikoetako edozeinen esku dagoen informazio publikoa eskatu eta eskuratzea, horretarako interes legitimorik eduki behar izan gabe eta hargatik eragotzi gabe Estatuko oinarrizko araudian eta lege honetan ezarritako mugak.

b) Lortutako informazioa erabiltzea, aurretiazko baimenaren beharrik gabe eta lege honek edo beste batzuek jarritakoak beste mugarik ez dela.

2. Lege hau aplikatuta informazio publikoa ezagutu, eskuratu edo erabiltzen duten herritarrek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Beren eskubidea fede onaren eta eskubide-abusua galarazteko printzipioak betez erabiltzea, eta, bereziki, zerbitzu publikoen funtzionamendu normalari kalterik egin gabe.

b) Lege honetan ezarritako gainerako obligazioak betetzea; bereziki, lortutako informazioa berrerabiltzeari dagokionez edo informazio publikoa eskuratzen duten pertsoez ari garela.



## **18. artikulua.- Informazioa ematera behartuta dauden subjektu publikoak**

1. Gardentasun-printzipioa aplikatzeak dakartzan betebeharrak –lege honetan jasotzen dira– Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateei exijitzen zaizkie, bai eta Euskal Herriko Unibertsitateari eta haren mendeko entitate instrumentalei ere.

Aplikagarri zaizkie, orobat, haiek eraturako elkarteei edo haiek kide diren elkarteei baldin eta elkarrekin nagusi badira indarrean dagoen legeriaren arabera, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 2.1 i) idatzi-zatian aipatutako lankidetzaz-organok barne.

2. Eusko Legebiltzarra Estatuak gardentasunaren arloan duen oinarritzko legeriaren eta lege honen xedapenen mende egongo da, bere administrazio-eginkizunak betetzeari eragiten dion guztian, hargatik eragotzi gabe Legebiltzarrak autonomia baliatuz ezartzen duena, autonomia hori bermatuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 27. artikuluan.

Aurrekoa horrela izanik ere, lege honetan xedatutakoa oso-osorik aplikatuko zaie Legebiltzarrari eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoari zuzenean lotutako zuzenbide publikoko erakundeei, eta, zehazki:

- a) Arartekoari
- b) Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari
- c) Lan Harremanen Kontseiluari

## **19. artikulua.- Informazioa ematera behartuta dauden subjektu pribatuak eta zuzenbide publikoko korporazioak**

1. Honako hauek ere behartuta daude gardentasuna betetzera, lege honetan publizitate aktiboari buruz ezarritako moduan:

a) Jarduera Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan gauzatzen duten eta funts publikoen kargura ordaindutako diru-laguntzak jasotzen dituzten alderdi politikoak, erakunde sindikalak eta enpresaburuen erakundeak.

b) Jarduera Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan gauzatzen duten erakunde pribatuak, aurrekontu-ekitaldian 100.000 eurotik gorako laguntza edo diru-laguntzak jasotzen badituzte euskal funts publikoen kargura, edo urteko diru-sarreraren % 40, gutxienez, euskal Administrazio Publikoaren laguntza edo diru-laguntzetatik badator eta laguntza horiek gutxienez 5.000 eurora iristen badira.

- c) Itunpeko ikastetxeak

d) Profesionalen elkargoak eta zuzenbide publikoko beste korporazio batzuk, beren eginkizun publikoak betetzeari dagokionez, bai eta, neurri berean, partaidetzaren gehiengoa duten partzuergo edo beste elkarte mota batzuk, lotura duten enteak eta merkataritza-sozietateak ere.

e) Lege honetan aipatzen diren zenbait interesen ordezkari diren taldeei.

2. Administrazioako erakundeek lege honetan aurreikusten diren betebeharrak benetan bete ditzaten, beharrezko informazio guztia ematera behartuta egongo dira zerbitzu publikoak ematen dituzten edo administrazio-ahala erabiltzen duten haien mendeko pertsona fisiko edo juridiko guztiak, eta informazio hori aldeztu aurretik eskatu beharko zaie. Kontratu publikoen esleipendunek ere bete beharko dute betebeharrak hori, dagokion kontratuan aurreikusita dagoen eran.

## **20. artikulua.- Egitura egokitzea informaziora iristeko eskubidera eta herritarren informazio-beharrizanetara**

1. Informazio publikora iristeko eskaerak lege honetan ezarritakoaren arabera ebazten dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek beren egiturako organo bati ezarriko diote espresuki gardentasunaren eta publizitate aktiboaren printzipioak bultzatzeko eta hedatzeko zeregina. Organo horrena izango da informaziora iristeko eskaerak jaso, izapidetu eta ebazteko ardura.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan, espresuki esleituko da gardentasun, informaziora iristeko eskubide eta gobernu irekiari buruzko gaiak bultzatzeko, diseinatze, jarraipena egiteko, ebaluatze eta koordinatze eskumena, eta, hain zuzen ere, herritarrekiko interakzioaren eskumena daukan sailari esleituko zaio eskumen hori. Sail horrek informaziora iristeko egiten diren eskaera guztiak erregistratuko ditu, gardentasun-txosten bat egingo du urtero, eta hurrengo urteko lehenengo hiruhilekoan Legebiltzarrera bidaliko du, hura jakinaren gainean egon dadin. Argitaratu ere egingo da txostena, herritarrekin interakzio komunikatiboa sustatzeko.

Txosten horretan honako alderdi hauek aztertu eta azalduko dira gutxienez:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren publizitate aktiboaren betebeharren betetze-maila eta maila hori hobetzeko hartutako neurriak.

b) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen gauzapearen balorazioa, honako hauek aipatuz:

-Aurkeztutako eskabide-kopurua.

-Ebatzitako eskabide-kopurua.

-Ebazteko batez besteko epea.

-Osorik onartutako eskabide-kopurua.

-Zati batean onartutako eskabide-kopurua.

-Beste norbait aurka dela onartutako eskabide-kopurua.

-Atzera botatako eskabide-kopurua.

-Onartu ez den eskabide-kopurua.

-Arrazoiak zati batean onartzeko edo beste norbait aurka dela onartzeko, atzera botatzeko eta ez onartzeko.

-Informaziorik eskatuena.

-Eskatzailearen profila, sexua eta eskaera egiteko erabilitako hizkuntza barne.

c) Kontsultarik gehien jaso duten edukiak.

3. Sail bakoitzak zeregin hauek ezarriko dizkio sailaren barruan eskumen horizontalak dituen organo bati, salbu eta lege substantiboren batek beste organoren bati esleitzen badio sailak kudeatzen duen informazioa argitaratzeko eskumena:

a) Lege honetan adierazten den informazio publikoa bildu eta zabaltzea, eta horrela, Gobernu Irekiaren Plataforman sailari buruz eskaini behar diren edukiak elikatzea.

b) Informazio-eskaerak izapidetzea.

c) Eskatutako informaziorako irispidea emateko egin behar diren barruko izapideak egitea.

d) Informaziora iristeko eskaerak zuzen izapidetzen diren jakiteko segimendua eta kontrola egitea.

4.- Euskal sektore publikoko gainerako administrazioek ere barnean esleitu beharko dute gardentasuna, informaziora iristeko eskubidea eta gobernu irekia sustatzeko eta koordinatzeko eskumena; hain zuzen ere, herritarrekiko interakzioaren gaian eskumena esleituta duen sailari esleituko diote eskumen hori, eta hark informazioa eskuratzeko egindako eskaeren erregistroa egingo du.

## **BIGARREN KAPITULUA.- PUBLIZITATE AKTIBOA ETA DATUEN IREKIERA**

### **21. artikulua.- Publizitate aktiboa**

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak herritarrei begira hartutako konpromiso gisa ulertu behar da publizitate aktiboa. Konpromiso horren arabera, euskal Administrazio Publikoak bere funtzionamenduari buruzko

informazio garrantzitsua argitaratuko du aldian behin, elkarrekintza komunikatiboa bultzatzeko. Informazio hori eguneratua, herritarrentzat ulergarria eta erraz eskuratzeko modukoa izango da.

## **22. artikulua.- Publizitate aktiboaren printzipio gidariak**

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeen publizitate aktiboa honako printzipio hauek gidatzen dute:

a) Egiazkotasun-printzipioa: gardentasunaren eta informazio publikoaren kalitatearen arloko xedapen orokorren arabera, informazio publikoak egiazkoa eta zehatza izan behar du, eta benetakotasuna, fidagarritasuna, osotasuna, erabilgarritasuna eta trazabilitatea egiaztatuta duten dokumentuak izan behar ditu iturri.

b) Erantzukizunaren printzipioa: lege honetan xedatutakoaren mende dauden entitateak legearen aginduak betetzearen erantzule dira.

c) Erabilgarritasunaren printzipioa: ematen den informazio publikoa, ahal den guztietan, eskatzen den helburuak betetzeko egokitua izan behar da.

d) Ulergarritasunaren, irisgarritasunaren eta guztientzako diseinuaren printzipioa: erraz irakurtzeko moduko formatuan emango da informazioa, errazagoa eta ulergarriagoa izan dadin, kontuan hartuta, batetik, informazio mota eta, bestetik, informaziora iristeko eskubidea baliatzea zailtzen dieten gorabehera bereziak dituzten beharrak. Gainera, herritarrek ulertzeko moduko mezuez taxutu beharko da informazioa; horretarako, batez ere bideoak, grafikoak, argazkiak, marrazkiak eta ematen den informazioaren nondik norakoak hobeto ulertzen laguntzen duen beste edozein konposizio-bide erabiliko da, orria edo dokumentu-euskarria osatzeko.

e) Doakotasunaren printzipioa: informaziora iristea eta iristeko eskabideak doan izango dira; nolahi ere, ordainarazpenak ezarri ahal izango dira, kopiak edo euskarriak egiteko edo informazioa jatorrizkoaz bestelako formatu batera aldatzeko.

f) Antolaketa-printzipioa: dokumentuei eta informazio-baliabideei buruzko informazio egituratua ematea, informazioaren identifikazioa eta bilaketa errazteko.

g) Diskriminazio teknologikorik ezaren printzipioa: lege honen aplikazio-eremuari lotutako entitateek gardentasuna gauzatzeko behar diren bitartekoak jarri beharko dituzte, informaziora iristeko bitartekoa edozein dela ere.

h) Elkarreragingarritasunaren printzipioa: informazioa Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalaren arabera argitaratuko da.

i) Berrerabiltzearen printzipioa: informazioa, hain justu, informazioa berrerabiltzeko aukera ematen duten formatuetan argitaratzea sustatuko da,

sektore publikoaren informazioa berrerabiltzeko arloan aplikagarria den legeriarekin bat.

### **23. artikulua.- *Publizitate aktiboaren arloko obligazioak***

1. Lege honek ezarritakoaren arabera gardentasun-betebeharrak eskatu behar zaizkien subjektuek beren ekimenez eman behar dute lege honetan adierazitako informazio garrantzitsua. Informazio hori egiazkoa, eguneratua, kalitate kontrastatukoa, objektiboa eta doakoa izango da, erraz iristeko moduko baliabideetan jarri beharko da, libreki eta etengabe tratatzeko moduan, eta, ahal dela, denbora errealean eta geolokalizatuta emango da. Halaber, hizkera ororen erabilera ez-sexista bermatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak zuzenean edo hirugarren pertsonen edo entitateen bidez sortzen dituen dokumentu edo euskarrietan.

2. Hori lortzeko, behar diren bitartekoak jarriko dira (batez ere elektronikoak), errazagoa izan dadin datuak birbanatzea, berrerabiltzea eta ustiatzea, eta informazioa guztiz eguneratuta eta erraz eskuratzeko eta ulertzeko moduan egotea bermatuko da, bai eta gutxienez bi hizkuntza ofizialetan egotea ere, indarrean dagoen legeriak ezarritako moduan. Horretarako, informazioa modu seguruan eta ulergarrian ikusarazteko eta ustiatzeko bitartekoak garatuko dira, titulu honetan jasotako aplikazio-eremuan sartzen diren entitateen eta instituzioen egoitza elektronikoetan, atarietan edo web orrietan.

Interes sozial edo kultureko helburuak besterik ez dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeek, 50.000 eurotik beherako aurrekontua badute, bitarteko elektronikoak erabili ahal izango dituzte lege honetatik eratorritako betebeharrak betetzeko. Jasotzen duten laguntza edo diru-laguntza publikoaren zatirik handiena ematen dien Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateak jarriko ditu haien eskura aipatutako bitarteko elektronikoak.

3. Subjektu horiei berberei dagokie oztopoak kentzea desgaitasunak dituztenek, berdintasunik gutxieneko egoeran daudenek edo tradizioz erakundeengandik urrunduta egon izan direnek informazio horretara iristeko modua izan dezaten. Horretarako, bitartekoak jarriko dira, herritar guztiek informazioa berdin-berdin eskuratu dezaketela eta diskriminazio teknologikorik izango ez dela bermatzeko, betiere aintzat hartuz ulergarritasunaren, irisgarritasun unibertsalaren eta guztientzako diseinuaren printzipioa, eta genero-ikuspegia txertatuz.

Helburu hori lortzeko, botere publikoek beste bitarteko batzuen bidez ere hedatu beharko dute informazio hori, bitarteko elektronikoetara irispiderik ez duten herritarrek eta, batez ere, interneten nabigatzeko baliabiderik, bitartekorik edo ezagutzarik ez duten pertsona edo kolektiboek ere izan dezaten haren berri. Pertsona eta kolektibo horiei guztiei, informazio hori eskuratzeko eta, beste pertsona edo kolektiboek bezalaxe, beren eskubideak baliatzeko behar dituzten publizitate aktiboko bitartekoak edo tresnak eskainiko dizkie administrazio publikoak –erabilgarri dituen baliabide teknologiko eta ekonomikoen barruan–.

4.- Publikotasun aktiboaren adierazpen grafikoak erabiliko dira publikotasun aktiborako ohiko bitarteko gisa konplexutasun handiko gai eta datuen kasuan. Nolanahi ere, adierazpen grafiko horiek nahitaez erabili behako dira edozein informazio ekonomiko-finantzario zabaltzeko, bai eta helburu nagusia baliabide publikoak erabiltzea, politika publikoak lehenestea edo zerbitzu publikoen bidez herritarren beharrei erantzutea duen, edo estatistika edo ehunekoen bidez erakusteko modukoa den beste edozein informazio zabaltzeko ere.

5. Kapitulu honetan ezarritakoaren arabera argitaratu behar den informazioa, oro har, hiru hilean behin argitaratuko da, araudi espezifikoak besterik ezartzen ez badu, eta, nolanahi ere, sarriago argitaratu ahal izango da. 6. Publizitatearen arloan erregimen zabalagoa edo intentsoagoa aurreikusten duten beste xedapen espezifikoaren aplikazioaren kaltetan izan gabe eta indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen mugak errespetatuz (datu pertsonalen babesari dagokionez, bereziki) aplikatuko da betebeharrak.

7. Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak bere ekimenez egin behar du alderdi hauei buruzko informazioaren publizitatea, ondorengo artikuluetan ezartzen denaren arabera:

- a) Instituzioari eta antolamenduari buruzko informazioa.
- b) Plangintzari eta ebaluazioari buruzko informazioa.
- c) Garrantzi juridikoa duen informazioa.
- d) Eragin ekonomikoa duen administrazio-jarduerari buruzko informazioa.
- e) Kontratuei buruzko informazioa
- f) Jarduera publikoari buruzko informazioa.
- g) Ekonomiari, aurrekontuei eta ondareari buruzko informazioa.
- h) Informazio orokorra.

#### **24. artikulua.- Erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa**

1. Lege honen arabera informazioa argitaratzera behartuta dauden subjektuek honako gai hauei buruzko informazioa argitaratuko dute: betetzen dituzten eginkizunak, aplikatzen zaien araudia –zehazki, beren estatutuak eta antolaketa-arauak sartuta–, egoitzen kokapen fisikoa, bai eta jendeari kasu egiteko duten ordutegia ere, eta, hala badagokio, kasu egiteko eta izapidetzeko dituzten bide elektronikoak.

2. Aurrekoarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak informazioa argitaratuko du, herritarrei jakitera emateko sektore hori osatzen duten entitateen administrazio-antolaketa eta eskumenak, bakoitzari aplikagarri zaion araudia eta antolaketa-egitura, gobernu-organoak, organo aholku-

emaileak eta parte-hartze sozialekoak (haien jarduera eta hartzen dituzten erabakiak barne).

3. Horretarako, organigrama eguneratu bat egingo dute, eta hor identifikatuko dituzte organo bakoitzeko arduradunak, agintariak eta entitateak gidatzen dituzten zuzendaritzako langileak, profilak eta ibilbide profesionalak zehaztuta; direktorio bat, gutxienez, betetako lanpostuari buruzko informazioa, harremanetan jartzeko telefonoa eta helbide elektronikoak biltzen dituela; beren agenda instituzionalak, kargua uztearen kalte-ordainak eta jarduera pribatuarekiko bateragarritasuna baimentzeko ebazpenak. Hor barnean sartzen da dauden behin-behineko langileen zerrenda, espresuki adieraziz beren identifikazioa, agindu zaizkien konfiantzazko edo aholkularitza bereziko lanak eta zein organorentzat egiten dituzten lan horiek, bai eta urteko ordainsariak ere.

4. Argitaratu egingo dira, orobat, lanpostuen zerrenda eguneratua, plantillak, lanpostuen katalogoak edo agiri baliokideak, adieraziz beren eginkizunak eta ordainsari-masak (langile mota guztiei dagokienez), lan-baldintzen akordioak edo hitzarmen arautzaileak eta indarrean dauden hitzarmen kolektiboak, bai eta enplegu publikoaren eskaintza edo dituen langile-premiak betetzeko antzeko kudeaketa-tresna eta, hala badagokio, bere giza baliabideak antolatzeko onartzen dituen planak, enplegatu publikoak hautatzeko prozesuen deialdiak eta izapideak azalduz (aldi baterako langileenak ere bai).

5. Argitaratu egingo da sektore publikoan bigarren lanpostu edo jarduera bat edukitzeko bateragarritasuna baimenduta daukaten enplegatu publikoen zerrenda, eta jarduera pribatuekiko bateragarritasuna aitortuta dutenena. Zerrenda horretan, honako hauek agertuko dira, gutxienez: bigarren lanpostuaren edo jarduera publikoaren edo jarduera pribatuaren izena eta deskribapena, bete beharreko ordutegia eta zein egunetatik aurrera baimentzen edo aitortzen den bateragarritasun hori, liberatu instituzionalen kopurua erakunde sindikalen arabera multzokatuta eta urtean erabilitako orduak zenbatuta, eta liberazio horiek Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoari eragiten dizkioten kostuak."

6. Azkenik, publizitate aktiboaren xede izango da antolamenduari buruzko beste edozein informazio ere, baldin eta funtzio publikoari, sektore publikoaren antolaketa eta funtzionamenduari edo gardentasun eta gobernu onari buruzko legerian jasota badago publizitate aktiboa eman behar zaiola.

## **25. artikulua.- Plangintzari eta ebaluazioari buruzko informazioa**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeek beren urteko eta urte anitzeko planak eta programak argitaratuko dituzte, helburu zehatzak, helburuak lortzeko aurreikusi diren bitarteko eta denborak eta betetze-maila eta emaitzak adieraziz –zeinak aldian-aldian ebaluatu eta argitaratu egin beharko diren–, eta neurketa-adierazleak eta ebaluazioan lortutako balorazioak ere jasoz. Beren eskumeneko zerbitzu publikoen betetze-

maila eta kalitatea baloratzeko behar den informazio estatistikoa ere sartzen da informazio horren barruan.

Halaber, publikoki erakutsiko dira jarduera-plan bakoitzean parte hartzeko aurreikusi diren moduak.

2. Sistematikoki argitaratuko dira, ebaluazioaren publizitateari buruz ezarritako moduan eta edukiekin, arau honen arabera derrigor egin beharreko ebaluazioak eta Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluaren erabakiz ebaluatu beharreko esku-hartze publikoen urteroko zerrendan azaltzen diren ebaluazioak.

3. Artikulu honetan aipatzen den informazioaren argitalpena, gutxienez, urtero eguneratuko da; nolahi ere, urte anitzekoa dela-eta, baliteke aurreikusitako ondorio positiboak edo negatiboak antzemateko modukoak izateko epea edo emaitzen ebaluazioa egiteko ezarritako denbora-esparrua aldi hori baino luzeagoa izatea, eta, kasu horretan, argitalpena onarpenarekin batera egingo da.

## **26. artikulua.- Garrantzi juridikoa duen informazioa**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeek, bakoitzak bere administrazio-eskumenen eremuan eta aplikagarri zaien neurrian, informazio hau argitaratuko dute:

a) Beren eskumen-eremuan aplikagarri zaien indarreko legeria, aldizkari ofizialetan eta dagokien egoitza elektronikoan egiten duten argitalpenari kalterik egin gabe.

b) Ildoak, jarraibideak, akordioak, zirkularrak edo partikularrek edo beste organo batzuek egindako kontsulten erantzunak, zuzenbidearen interpretazioa diren edo herritarrentzako ondorio juridikoak dituzten neurrian.

c) Beren ekimenekoak diren lege-aurreproiektuak eta xedapen orokorren proiektuak, organo aholku-emaileei irizpenak eskatzeko unean edo, horiek nahitaezkoak ez badira, hasierako eta amaierako onarpena ematen zaien unean. Prozedurak irekita jarraitzen badu, jendeak iradokizunak egin ditzakeela adieraziko da, eta horretarako prozedura zein den azalduko da. Horrek, hala ere, ez du ordezkaturko jendaurrean jartzearen izapidea, izapide hori nahitaezkoa den kasuetan.

d) Informazio publikoaren edo jendaurrean jartzearen izapidea behar duten dokumentuak argitaratuko dira, bai eta espedientea osatzen duten nahitaezko memoria eta txostenak ere, eta, bereziki, inpaktuaren ebaluazioa, prozedura osoaren memoria laburra, memoria ekonomikoa eta sektoreko legeriak ezartzen duen gainontzeko nahitaezko dokumentazio guztia.

e) Katalogo eguneratua, indarrean dauden administrazio-prozedura guztiena, eta, horien artean, formatu elektronikoan dauden prozedurena; kasu guztietan,



administrazio-isiltasunari eta jar daitezkeen errekurtsoei buruzko informazioa erantsiko da.

f) Jabari publikoan edo zerbitzu publikoen kudeaketan eragina izan dezaketen administrazio-egintzak, erantzukizuneko aitorpenak eta aurretiazko komunikazioak, edo interes publiko bereziko arrazoiengatik argitaratzea komeni dela irizten direnak.

g) Administrazio-bidean berrikusteko prozedura bat izan duten egintzak.

h) Garrantzi publikoa izan dezaketen ebazpen administratibo eta judizialak, beren zereginak direla-eta lege hau betetzera behartuta dauden pertsonen eragiten dieten ebazpen judizial irmoak, eta, hala badagokio, ebazpen horien arabera gozten zaizkien erantzukizunak.

i) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenak.

j) Xedapenen izapideak egiaztatzeko memoriak eta dokumentuak.

2. Informazioa ematera behartuta dauden subjektu pribatuak eta zuzenbide publikoko korporazioak, halaber, behartuta daude, gutxienez, jabari publikoan edo zerbitzu publikoen kudeaketan eragina izan dezaketen baimenak, erantzukizuneko aitorpenak eta aurretiazko komunikazioak argitaratzera.

## **27. artikulua.- Eragin ekonomikoa duen administrazio-jarduerari buruzko informazioa**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateek argitaratu egingo dute eragin ekonomikoarengatik herritarren interesekoak diren administrazio-prozedurei buruzko informazioa, adieraziz xedea, izapideak eta epeak, bai eta lotutako formularioak ere, hala badagokio. Prozedurak, osorik edo zati batean, elektronikoki izapidetzeko aukera baldin badago, berariaz adieraziko da.

2. Bereziki, eta laguntza eta diru-laguntzei dagokienez:

a) Aurrekontu-ekitaldian zehar egindako diru-laguntzetarako programen deialdiak arautzen dituzten arauen zerrenda argitaratuko dute urtero, baita indarrean daudenak ere, eta, horiez gain, laguntzen zenbatekoak, xede eta helburuak eta onuradun izan daitezkeen pertsona edo erakundeek bete beharko dituzten baldintzak.

b) Emandako diru-laguntza eta laguntza publikoen onuradunen zerrenda argitaratuko dute, zenbateko, helburu eta xedeak adierazita; salbuespen izango dira onuradunen zaurgarritasun sozialaren arrazoiak direla-eta justifikatzen diren kasuak.

c) Informazio estatistikoa argitaratuko dute, batetik, diru-laguntzen zenbateko osoari buruz, eta zenbateko hori banakatu egingo da, lehiaketa-prozeduraren bidez edo prozedura zuzenaren bidez eman diren kontuan hartuta; eta,

bestetik, diru-laguntza bakoitzak diru-laguntzen aurrekontu orokorrean hartzen duen ehunekoari buruz.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak egiten ari diren azpiegitura-obra nagusiei buruzko informazio garrantzitsua argitaratuko du, besteak beste honako datu hauek emanez: obraren xedea, kontratista erantzulea, esleipenaren zenbatekoa, gauzatzeko epea eta aurreikusitako eta benetako hasiera- eta amaiera-datak, bai eta azpiegitura-obra horiei lotuta aurrekontuan jasotako kostua eta benetan gastatutakoa eta bien arteko aldearen arrazoiak ere.

Halaber, egindako aldaketak, esleipenen prezioetan izandako aldaketak barne, eta informazio laburtua argitaratuko dira, herritarrek aldian-aldian jakin dezaten zein azpiegitura-obra dauden bukatuta eta zein diren onartuta eta gauzatzeko daudenak.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak egiten dituen lankidetzahitzarmen guztiak argitaratu egin behar dira, honako hauek adierazita: sinatzaileak, xedea, iraupena, egindako aldaketak, prestazioak eta hitzartutako obligazio ekonomikoak. Halaber, sinatzen diren kudeaketa-gomendioak ere argitaratu behar dira, haien helburua, aurrekontua, iraupena, betebeharrak ekonomikoak eta egiten diren azpikontratazioak adierazita eta esleipendunak, esleipen-prozedura eta esleipenaren zenbatekoa aipatuta.

5. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateek argitaratu egingo dituzte:

- a) Izendapen askeak,
- b) Goi-zuzendaritzako zuzendaritza-kide eta lan-kontratuko langileen hautaketa-prozesuen deialdiak,
- c) Haien ordainsariak,
- d) Kargu-uzteak eta arrazoiak.

Goi-zuzendaritzako zuzendaritza-kide eta lan-kontratuko langileen kasuan, gainera, argitaratu egingo dira ezarri zaizkien helburuak eta erabili beharreko ebaluazio-prozeduraren arabera lortu dituzten emaitzak ere.

6. Informazioa ematera behartuta dauden subjektu pribatuek eta zuzenbide publikoko korporazioek argitara eman behar dute oinarritzko legeriak eskatzen duen informazioa. Legeria horren arabera, ondorio ekonomikoak edo aurrekontu-ondorioak dituen administrazio-kudeaketako egintza hauei buruzko informazioa argitaratu behar da gutxienez:

- a) Sinatutako akordioak, dagokion informazioa emanez, hurrengo artikuluan azaltzen den bezala.

b) Sinatutako hitzarmen eta kudeaketa-gomendioak, dagokion informazioa emanez.

c) Jasotzen dituzten diru-laguntzak eta laguntza publikoak, organo-emailea administrazio publiko bat baldin bada, eta berariaz adieraziko dira euskal sektore publikoa osatzen duten entitate edo erakundeek emandakoak. Azken kasu horretan, diru-laguntza mota, organo-emailea, zenbatekoa eta xedea edo helburua azalduko dira.

7. Emakida bidez zerbitzu publikoak ematen dituztenek herritarrei beharrezko informazioa bermatuko diete, herritarrek kalitate-maila egokia eskatu ahal izateko eta, behar izanez gero, beren eskubideak erabili ahal izateko. Hori dela-eta, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan sartutako erakunde esleitzailleek zerbitzuaren emakida arautzen duten administrazio-klausulen agirietan bilduko dituzte informazio hori emango dela bermatzeko beharrezkoak diren aurreikuspenak.

## **28. artikulua.- Kontratuei buruzko informazioa**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateek informazioa argitaratuko dute programatutako kontratuei eta formalizatutako kontratu guztiei buruz, adieraziz kontratuaren xedea eta kontratu mota, lizitazio eta esleipenaren zenbatekoa, esleipen-prozedura eta baldintza tekniko eta administratiboen agiria. Halaber, adieraziko da kontratua zein bitartekoren bidez iragarri den –hala badagokio–, prozeduran parte hartu duten lizitatzailen kopurua eta esleipendunaren nortasuna edo kontratua hutsik geratu den, bai eta formalizazio-data, egiten hasteko eguna, kontratuaren aurreikusitako iraupena eta kontratuan sartutako aldaketak ere; bereziki, kontratuaren luzapenak, kontratu-lagapenak, prezioen berrikusketak, kontratuaren suntsiarazpenak edo baliogabetasun-kasuak eta azpikontratazioak, azken horren kasuan azpikontratataren nortasuna zehaztuta. Atzera egiteko erabakiak eta kontratuei uko egiteak ere argitaratuko dira.

2. Argitaratu egingo dira orobat kontratazio-entitateak eta -organoak – izendapen zehatza, telefonoa eta posta-helbidea eta helbide elektronikoa adieraziz–, kontratazio-mahaien osaera eta mahai horiek egindako aktak eta behin betiko ebazpenak, parte-hartzaile bakoitzak lortutako puntuazioa zehaztuta.

3. Sektore publikoko kontratuen legerian ezarritako prozedura bakoitzaren bidez zenbat kontratu esleitu diren argitaratuko da, eta datu estatistikoak ere bai, prozedura bakoitzaren aurrekontu-bolumenaren ehunekoari buruz; hala, jakin ahal izango da azken lau urteotan kontratu-modalitate bakoitzean kontratatutako ehunekoak zein diren, eta sektore publikoarekin kontratua egin duen enpresa bakoitzak jaso dituen ehunekoak zein diren ere bai.

4. Kontratu txikiei buruzko informazioa hiru hilean behin eman ahal izango da, eta nahitaezkoa da 3.000 eurotik gorako kontratu txiki oro banaka argitaratzea.

5. Kontratuen legeriaren arabera isilpeko edo ezkutukotzat jo diren kontratuetan, edo gauzatzeko segurtasun-neurri bereziak behar dituzten kontratuetan, edo Estatuaren segurtasunerako oinarrizko interesak babesteak hala eskatzen duenetan, indarrean dagoen legeriarekin bat etorritz erregelamendu bidez ezartzen diren datuak soilik argitaratuko dira.

6. Informazioa ematera behartuta dauden subjektu pribatuak eta zuzenbide publikoko korporazioek informazioa argitaratuko dute euskal sektore publikoa osatzen duten entitate eta erakundeekin egindako kontratuei buruz.

### **29. artikulua.- Jarduera publikoari buruzko informazioa**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko instituzio eta erakundeek eta horietan gardentasun-printzipioa betetzera behartuta dauden subjektuek jakitera emango dute garrantzi publikoko beren jarduera.

2. Bereziki honako hauek joko dira garrantzi publikoko jardueratzat:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Gobernu Kontseiluaren akordioak.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeetako gobernu-organo edo administrazio-organoen akordioak.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko goi-kargudunen eta zuzendaritza-kideen agenda osatzen duten ekitaldi publikoak.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeek eta zerbitzu publikoak ematen dituztenek informazio hau zabalduko dute argi, modu irisgarrian, ulergarri eta erraz: zein zerbitzu publiko ematen duten, aurreikusita dituzten prestazioak, horien erabilgarritasuna, zerbitzu-karta eta beren eskumeneko zerbitzu publikoen betetze- eta kalitate-maila baloratzeko beste edozein informazio. Argitaratu egingo da erakundeek egindako publizitate-kanpainen gastua ere, komunikaziorako erabili den euskarria eta bidea zein izan den adierazita.

### **30. artikulua.- Ekonomiari, aurrekontuei eta ondareari buruzko informazioa**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak argitara emango du, osatzen duten entitate guztientzat, bere aurrekontuei buruzko informazioa, aurrekontu-partida nagusien deskribapena eginez eta informazio eguneratua eta ulergarria emanez aurrekontuaren gauzatzeari eta likidazioari eta bere zorpetze-mailari buruz. Azken kasu horretan, honako informazio hau erantsiko du:

a) Denboran izandako bilakaera, epeak eta oinarrizko ezaugarriak

b) Finantza- eta ondare-egoeraren adierazgarri diren adierazleak.

c) Argitaratu beharreko urteko kontuak, kanpo-kontrolako organoek egindako kontu-auditorien eta fiskalizazioen txostenak, betiere aplikatu beharreko aurrekontu-, kontrol- eta kontabilitate-araudia betez.

d) Autonomia Erkidegoaren finantzazioari buruzko oinarrizko informazioa, finantzazio-bideak adierazita.

e) Administrazio publikoek duten biztanleko zorpetzeari, zorpetze erlatiboari eta aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako helburuen betetzeari buruzko informazioa.

2. Aurrekontua partida guzti-guztiei erreferentzia eginez argitaratuko da, eta aurrekontu-partida bakoitza zeri dagokion erraz jakiteko azalpen labur edo kontzeptu bat erantsiko zaio. Gainera, gauzatutako aurrekontua ere argitaratuko da; hala, erraz alderatu ahal izango dira biak, bai eta onartutako kreditu bereziak eta kreditu-gehikuntzak ere, halakorik balego.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoaren ondasun eta eskubideen inbentario orokorra argitaratuko du, dagokion arautegiak ezartzen duen edukiaren arabera. Halaber, publikoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak zenbat ibilgailu dituen jabetzan.

4. Kalterik egin gabe gai honetan erakundearen eta antolamenduari buruzko informazioaz ezartzen denari, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateek urtero argitaratuko dituzte funtzionarioen eta langile lan-kontratudunen, behin-behineko langileen, goi-kargudunen, zuzendaritzako langileen eta gobernukideen ordainsariak, pizgarriak barne, halakorik balego, eta kargua uzteagatik jasotako kalte-ordainak.

### **31. artikulua.- Interes orokorreko informazioa**

1. Kasu bakoitzerako arautegi espezifikoak ezartzen dituen informazio-betebeharrak betetzeaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateek argitaratu egingo dute herritarrentzat interes orokorrekoa den informazioa; esate baterako, informazio kartografikoa edo trafikoari, eguraldiari, ingurumenari, lurralde-antolamenduari eta hirigintzari, kulturari, osasunari eta hezkuntzari buruzko informazioa.

2. Titulu honetan aipatzen diren subjektu publiko eta pribatu guztiek argitaratu egingo dituzte, gainera, zerbitzu publikoetara iristeko betekizunak eta baldintzak, adieraziz ordutegia, eta, hala badagokio, ordaindu beharreko tasak, tarifak edo prezioak eta, halakorik egonez gero, zerbitzu horietara iristeko dauden itxaron-zerrendak.

3. Jakitera emango da zein diren herritarrei zerbitzu emateko eta herritarren parte-hartzerako bideak, zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko kexak eta erreklamazioak aurkezteko prozedura, aurkeztutako kexa-kopurua eta onartutako edo herritarren alde ebatzitako kexen kopurua edo ehunekoa.

4. Halaber, argitaratu egingo da herritarrek gehien eskatzen duten informazioa eta lege honen bidez araututako irispide-eskubidea baliatuz gehien eskatzen den informazio publikoa.

### **32. artikulua.- Datuak berrerabiltzea eta irekitzea**

1. Gardentasuna hobetzeko, administrazioen arteko elkarreragingarritasuna sustatzeko eta gizartean balioa sortzeko asmoz, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateek beren esku dauden datu publikoak eraginkortasunez irekitzeko behar diren ekintzak sustatu behar dituzte, betiere datuak berrerabiltzeko eran eta pribatutasun, segurtasun edo jabetzaren murrizketak erabat errespetatuz.

2. Datuak, oro har, inolako lizentzia edo baldintza espezifikoren beharrik gabe eta formatu digital, estandarizatu eta irekian eman behar dira, libre eta doan, herritarrek eta agente konputazionalak ulertu eta berrerabili ahal izateko moduko egitura argi eta esplizitu bati jarraituz, datuon birbanaketa, berrerabilera eta aprobetxamendua errazteko. Hala ere, datu jakin batzuk berrerabili ahal izateko, aurretik lizentzia ematea eskatu ahal izango da. Erregelamenduz zehaztuko dira eskakizun hori justifikatzen duten kasuak.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak informazio publiko berrerabilgarriaren baliabideetarako irispidea emango du, baliabideok sarbide-puntu erkide batean eskueran jarriz. Puntu hori Gobernu Irekiaren Plataforman egongo da kokatuta, eta han informazio zehatza eta eguneratua emango da datu-multzo bakoitzaren ezaugarriei buruz. Bereziki, administrazio publikoen esku dauden datu eta dokumentu elkarreragingarrien zerrenda emango da jakitera, bai eta haien aplikazio informatikoen iturburu-kodea ere, baldin eta aplikazio horiek iturri irekiko aplikazio informatikoen direktorio baten zati badira.

4. Halaber, espazio bat jarri beharko da sarbide-puntuan bertan, herritarrek proposamenak eta iradokizunak egiteko, bai eskatutako edo emandako informazioari buruz eta bai erabilitako formatu, programa edo lengoia informatikoei buruz. Espazio horretan, lekua egin ahal izango da datuak irekitzearekin eta berrerabiltzearekin zerikusia duten aplikazio informatikoetan parte hartzeko ere.

5. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak interneten presentzia izateko ereduaren esparruan, Gobernu Irekiaren tresna batzuk garatuko dira Interneten, partekatzeko eta dohainik eta modu librean berrerabiltzeko.

## **HIRUGARREN KAPITULUA. INFORMAZIO PUBLIKORAKO IRISPIDEA**

### **33. artikulua.- Informaziora iristeko eskubideen titularrak eta eskatzaileen eskubideak**

1. Informazio publikora iristeko eskubidea pertsona fisiko zein juridiko orori dagokio, bai eta, lege honetan ezarritakoaren arabera, aurretiazko eskaeraren

bidez eraturako entitate, plataforma edo sare orori ere, lege honetan jasotako salbuespenak baino ez direla.

2. Eskubide hori baliatzeko, ez da beharrezkoa izango informazioa eskatzeko arrazoiak ematea, eta ez dago interesdun izan beharrik, ez eta bestelako eskubide edo interes legitimorik eduki beharrik ere.

3. Informazio publikoa eskatzen duenak honako hauetarako eskubidea du:

a) Lege honek ematen dizkion eskubideei buruzko informazioa eta aholkularitza jasotzeko, eskubideak behar bezala erabil ditzan, Euskal Sektore Publikoaren Antolamenduari eta Funtzionamenduari buruzko Legean aitortutako administrazio onaren eskubidearen arabera.

b) Eskatzen duen informazioa jasotzeko eta, gainera, lege honek ezartzen dituen gehieneko epeen barruan jasotzeko.

c) Eskatutako informazio publikoa berak aukeratzen duen eran eta formatuan jasotzeko, legearekin bat etorritz.

d) Eskatutako informazioaren zati bat edo informazio osoa zergatik ez zaion ematen jakiteko, eta informazioa berak eskatutako formatuan edo eran zergatik ez zaion ematen jakiteko.

e) Eskatutako informazioa jasotzeko aplikatu dakizkiokeen tasen eta prezioen zerrenda ezagutzeko, eta horiek ordaintzetik salbuetsita geratzeko arrazoi berri izateko.

f) Jasotako informazioa erabiltzeko, aurretiazko baimenik gabe, lege honetan eta gainerako ordenamenduan ezarritako mugen barruan.

#### **34. artikulua.- Espedienteetarako irispidea**

Edozein herritarrentzako irispide libreko informazio publikotzat joko dira administrazio-espeditente bukatuak edo administrazio-espeditenteetako izapide bukatuak. Horietara iristeko, ez da zertan interesduna izan beharrik. Lege honetan ezarritakoari jarraituko zaio informaziora iristeko, betiere administrazio-prozedura erkidearen printzipio orokorren esparruan eta datu pertsonalen babesari buruzko arautegia betez.

#### **35. artikulua.- Informazio publikora iristen diren pertsonen obligazioak**

Informazio publikora iristeko eskubidea baliatu nahi duten pertsona, entitate, plataforma edo sareek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Beren eskubidea fede onaren printzipioa eta eskubide-abusua galarazteko printzipioa betez erabiltzea eta, bereziki, informazio publikora iristea zerbitzu publikoen funtzionamenduaren eraginkortasunari kalterik egin gabe eta eskaerak ahalik eta zehatzen eginez. Horretarako, administrazioa eskatzailearekin elkarlanean jardungo da, administrazio ona izateko eskubideak

agintzen duen bezala, zeina Euskal Funtzio Publikoaren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Legean aitortzen den.

b) Lortutako informazioa berrerabiltzeari buruz oinarritzko araudian ezarritako betebeharrak betetzea.

c) Dagokion ebazpenean informazioa eskuratzeko ezarri diren baldintza eta betekizun materialak betetzea, informazioa iristeko modalitate jakin bat erabili behar bada edo artxibategi edo bulego publiko batean aurrez aurre egin behar bada.

### **36. artikulua.- Informazioa iristeko modalitatea.**

Eskaera egiteko erabilitako edo eskatzaileak eskatutako euskarrian eta formatuan emango du informazioa administrazioak, salbu eta honelakoren bat gertatzen bada:

a) Publizitate aktiboaren printzipioari jarraikiz edo beste moduren batean informazioa eskatzailearen eskura egotea, eta, hortaz, informazioaz erraz jabetzeko modua edukitzea. Kasu horretan, administrazioak edo dagokion entitateak aukera izango du informazioa eskura jartzeko, soilik gorabehera horren berri emanez eta informazio hori zein bide erabilia eskura dezakeen adieraziz.

b) Behar bezala justifikatzea arrazoi teknikoak direla-eta ez dagoela kopia formatu jakin batean bidaltzerik, edo ezinezkoa edo izugarri garestia dela informazioa eskatzaileak eskatutako moduan ematea; kasu horretan, administrazioak edo dagokion entitateak beste moduren batean eman beharko du informazioa, informazioa aurrez aurre erakutsita ere bai, berma dadin informazioa iristek ez dituela sortzen neurritz kanpoko gastu horiek, ez dakarrela jatorrizkoa galtzerik edo hondatzerik edo, oro har, modalitate hori justifikatzen duten bestelako arazoak saihesten direla.

### **37. artikulua.- Informazio publikora iristeko eskubidearen mugak**

1. Indarrean dagoen legerian informazio publikora iristeko eskubidearentzat aurreikusten diren mugak aplikatuko dira kasu bakoitzean eta, bereziki, iristeko eskubidea ukatzeko edo salbuespenak ezartzeko Lege honetan jasotzen diren arrazoiak aplikatuko dira, datu pertsonalen babesa barne.

2. Talka egiten duten eskubideen pisua neurtu beharko du administrazioak, informazioari zabalkundea ematearen interes publikoa eta legeko salbuespenek babestutako interesak kontuan hartuta.

### **38. artikulua.- Doakotasun-printzipioa eta kostuak**

1. Informaziorako irispidea doakoa da.

2. Kopia egiten direnean edo informazioa jasotzen duen jatorrizko bertsioa beste formatu batera pasatzeak kosturen bat eragiten duenean besterik ez da



kobratuko zenbatekoren bat tasa gisa, dagokion arautegiarekin bat etorritz. Kopuru hori ez da izango eragindako benetako gastua baino handiagoa.

3. Artxibategi, liburutegi eta museoen kasuan, doan izateari edo ordaintzeari dagokionez, berariazko legeriak ezarritakoa beteko da.

### **39. artikulua.- Irispide partzialaren printzipioa**

1. Eskatzaileari eman dakioken edukia eta legeko salbuespenen baten eraginpean dagoen informazioa baldin badago eskatutako informazioaren barruan, dagokion erakundeak bereizi egin beharko ditu informazio erreserbatua eta irisgarritzat jotzen duen informazioa, eta ezingo du arrazoi horrengatik ukatu informazio osora iristea. Horrelako kasuetan, eskatzaileari adierazi egin beharko zaio informazioaren zer zati utzi den eman gabe.

2. Informazioaren barruan babes bereziko datuak daudenean, datu horiek bereizi eta gero emango da argitara informazioa.

3. Ez da irispide partzialik emango, horrek informazio desitxuratua edo zentzugabea sortzen badu.

### **40. artikulua.- Datuetara iristeko eskubidearen aldi baterakotasuna eta salbuespenak**

1. Irispiderako eskubidea erabiltzeko mugak legeek ezarritako denborarako aplikatuko dira, edo neurri hori justifikatzen duten arrazoiek dirauten bitartean.

2. Eskatzaileak prozedura berriz hasi ahal izango du, edo administrazioak ofizioz egin beharko du hori, baldin eta informaziora iristeko eta, ondorioz, informazioa ukatzeko aplikatu zen salbuespena justifikatu zuen arrazoa desagertzen bada eta horren berri izaten bada.

3. Informaziora iristea ukatzeak salbuespena izan behar du eta arrazoibideak oinarri sendoagoak izan behar ditu; aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera, zerrenda honetan azaltzen diren eta oinarrizko legerian aitortzen diren salbuespenak baino ez ditu izango oinarri:

a) Datu pertsonalen babesa, estatuko legeetan eta otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoari jarraikiz (Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa da lege hori).

b) Segurtasun publikoa.

c) Ez-zilegi penalen eta arau-hauste administratibo edo diziplinazkoen prebentzioa, ikerketa eta zehapena.

d) Datu komertzialen edo industrialen konfidentziasuna.

e) Konfidentzialtasuna eta sekretua bermatzea, erabakiak hartzeko prozesuetan.

f) Zainketa-, ikuskatze- eta kontrol-funtzio administratiboak.

g) Bizitza pribatua eta interes partikular legitimoak, betiere informazio publikora iristeko eskubidearen eta datu pertsonalak babestu beharraren arteko erlazioari buruz lege honetan xedatutakoa betez.

h) Lanbideko sekretua eta jabetza intelektual eta industrialak.

i) Lege-mailako arauak babesten duten informazio guztia.

4. Aipatutako mugak eta ukatzeko arrazoiak xedearen eta babes-helburuaren arabera izango dira, eta kontuan hartuko da kasu jakin bakoitzaren egoera, bereziki, informazioa iristea justifikatzen duen interes publiko edo pribatu handiagorik ba ote dagoen.

5. Informazioa iristeko eskubidea baliatzerako orduan salbuespenak ekartzen dituzten inguruabarrak egoteak ez du, ezinbestez, irispidea ukatzea ekarriko. Muga horiek modu murriztailean interpretatuko dira: baloratu egingo da mugak babestu nahi duen ondasun juridikoari edo interesari informazioa iristea egiten dion kaltea, eta neurtu egingo da ea informazioa iristean dagoen interes publikoa mugak babesten duen interes edo ondasunaren gainetik dagoen.

6. Hala ere, herritarrek, administrazioari informazioa emateko unean, informazioa argitaratzeari buruz duten iritzia eman ahal izango dute; hau da, informazioa osorik edo partzialki argitaratzea baimendu edo ukatu ahal izango dute, betiere indarrean dagoen legeriak ezarritakoa betez.

7. Artikulu hau aplikatuz ematen diren ebazpenak argitaratu egingo dira, aurrez dauzkaten datu pertsonalak kenduta eta behin interesdunei jakinarazi ondoren; nolahi ere, informazioa badagoen ala ez adierazteak berak irispidearen mugaren bat urratzen badu, gorabehera hori adieraziko da eskabidea ezestean.

#### **41. artikulua.- Informazio publikora iristeko eskubidea, eta datu pertsonalak babestea**

1. Eskatzaileak bere datu pertsonalak dituen informazio publikora iristeko eskaera egiten duenean, datu pertsonalen babesa erregulatzen duen arautegiak ezartzen duena beteko da informazio hori emateko.

2. Oro har, eman egingo da informazioa, batik bat Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren antolaketa, funtzionamendu edo jardura publikoarekin lotutako datuak dituen informazioa bada, salbuespen direla informazioa iristeko eskubidearen muga eta salbuespenen arabera datu pertsonalen babesa interes publikoaren gainetik egoteagatik informazioa zabaldu ezin den kasu zehatzak.

3. Nolanahi ere, ez da irispiderik emango inguruabar bereziak daudela irizten denean; hau da, datu pertsonalen babesa informazioa hedatzeko interes publikoaren gainera dagoenean edo ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudia gordetzeko eskubidea zaindu behar denean.

Zehazki, ukatu egingo dira hirugarrenen datu intimoak dituen informazio publikora edo haien bizitza pribatua ukitzen duen informazio publikora iristeko eskaerak, non eta ideologia, sindikatu-ekintza, erlijio edo sinesmenei dagokienez eskaerarekin batera ukituaren berariazko adostasun idatzirik aurkezten ez den, edo, arraza-jatorri, osasun edo sexualitateari buruzko informazioaren kasuan legeren batek baimena ematen ez duen edo eraginpeko pertsonak espresuki baimentzen ez duen. Kasu horietan, bereziki babestutako datu pertsonaletarako irispidean, datuak babesteko legeriak ezarritakoa beteko da.

## **42. artikulua.- Informazio publikora iristeko eskaera**

1.- Eskaera edozein bitarteko erabiliz egin ahal izango da, eta informazioa daukan erakundeari zuzendu beharko zaio. Eskabidea ahoz egiten bada, bai unitate arduradunetara edo informazio-bulegoetara joanda bai telefonoz deituta, edo egiaztatu ezin litekeen beste modu batera egiten bada, formatu elektronikoa jasoko da eskabidea, artikulua honetan azaldutako puntuak adierazita. Halaber, ziurtagiria bidaliko edo emango zaio eskatzaileari.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitate publikoen esku dagoen informazioa bada, entitate horiek Administrazio Orokorrek ezarritako prozeduraren arabera bideratuko dute espedienteak; prozedura horrek plataforma elektronikoa komun bat du euskarri, eta, hala, erregistro bakar batean bildu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoari egindako eskabide guztiak.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten eta zuzenbide pribatuaren arabera jarduten diren erakundeek daukaten informazioa nahi bada, edo zerbitzu publikoak ematen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek daukatena, orduan horiek lotuta dauden administrazio orokorreko edo instituzionaleko erakundeari zuzendu beharko zaio eskaera, hark ebatz dezan. Nolanahi ere, azken horrek, bere egoitza elektronikoa edo web orrietan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eskabidea egiteko ezarritako prozedura elektronikorako sarbidea eduki beharko du, errazago izan dadin ebazteko eskumena duen organoari eskabidea zuzenean igortzea.

Eskabidea administrazioari lotutako entitate pribatuaren aurrean aurkezten bada zuzenean, hark gardentasunaren arloan eskumena duen administrazio orokorreko entitateari bidaliko dio eskabidea, ebazpena eman dezan. Entitate eskudun horrek erregistratu, eta atxikita dagoen sailera bideratuko du eskabidea, eskatutako informazioarekin batera, bere esku baldin badago.

4. Eskaerak eduki hau izan beharko du, gutxienez:

- a) Eskatzailearen nortasuna.
- b) Eskatzen den informazioaren deskribapen zehatza.
- c) Hala balegokio, informaziora iristeko nahiago den era edo formatua.
- d) Harremanetarako helbide bat (ahal bada elektronikoa), administrazioarekin komunikatu ahal izateko.

5. Eskatzaileak ez du arrazoitze beharko zergatik eskuratu nahi duen informazioa, eta eskaera ez arrazoitzeak ez du berez eskaera ezestea eragingo. Hala eta guztiz ere, informazio hori eskatzeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu, eta, ebazpena emateko, kontuan hartu beharko dira.

6. Eskatzaileak Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialetan zuzendu ahal izango zaizkie Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateei.

Atal honetan ezarritakoa ez da eragozpen izango noizbait Administrazioak beste hizkuntza batzuetan aurkeztutako eskabideei erantzutea erabaki dezan, Euskal Sektore Publikoaren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Legean ezarritakoaren arabera. Zehazki, eskabidea administrazioa kokatuta dagoen lurraldeko edozein hizkuntza ofizialetan aurkeztu ahal izango da, kanpo-ordezkaritzak edo EAETik kanpo dauden Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateak badira.

#### **43. artikulua.- *Eskaera onartzea eta ebazpenaren aurreko gertakariak***

1. Eskaerak informazioa behar beste identifikatzen ez badu, eskaerari buruzko ebazpena egin behar duen erakundeak eskaera argitzeko edo zehazteko eskatuko dio informazioa eskatu duenari, informazio-eskaera jaso eta hurrengo egunetik hamar eguneko epean. Eskatzaileak beste horrenbeste eguneko epea izango du erantzuteko, eta, erantzuten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da. Eskatzailea bere eskaeran atzera egindakotzat emateko eta eskaera artxibatzeko, ebazpen bat emango da, eta eskatzaileari jakinaraziko zaio ebazpen hori, dagokion errekurtsioa aurkez dezan edo nahi izanez gero eskaera berri bat egin dezan, zer eskatzen duen edo zer informazio nahi duen zehaztuta.

2. Honako kasu hauetan bakarrik ez da onartuko eskaera: informaziora iristeko eskubidetik salbuetsita dagoen informazioa eskatzen denean; neurritz kanpoko eskaera denean; eskatzen den informazioa barruko komunikazio osagarri edo lagungarria denean, garrantzi edo interes publikorik gabea; eskaera materialki bideragarria ez denean, informazioa prestatzen ari delako, argitalpen orokorra oraindik egin gabe dagoelako edo zabalkundea eman ahal izateko birprestaketa konplexua behar duelako, edo erakundeak informazio hori ez duenean eta beste zein entitatek eduki dezakeen ere ez dakienean. Nolanahi ere, eskaera onartzen ez bada, ez onartzeko arrazoiak eman beharko dira.

3. Bereziki, irizpide hauek aplikatuko dira informazioa iristeko eskaerak ez onartzeko arrazoiak aplikatzeari dagokionez:

a) Prestatzen ari den informazioa iristeko eskaera ez onartzeko ebazpenak zehaztu egin beharko du zein den informazioa prestatzen ari den organoa eta zein epe aurreikusten duen prestaketa bukatu eta informazioa erabiltzeko moduan jartzeko.

b) Nahitaezko txostenak ez dira hartuko kausa honetan oinarria duen eskabidea ez onartzea justifikatzeko aski diren informazio osagarri eta lagungarritzat.

c) Eskatutako informazio batek tratamendu informatizatu arrunta behar badu eskatzaileari eman aurretik, tratamendu hori ez da informazioaren birprestaketatzat joko. Beraz, ez du eskaera ez onartzeko justifikaziotzat balioko.

4. Behar bezala identifikatutako hirugarren batzuen eskubide eta interesei eragiten dien informazioari buruzkoa bada eskaera, ebazteko eskumena duen organoak entzunaldiaren izapidea eskainiko die horiei, alegatu beharrekotzat jotzen dutena alegatzeko eta, komeni bazaie, berriazko onarpena emateko. Hamabost eguneko epea emango zaie horretarako. Eskatzaileari horren berri eman beharko zaio, eta adieraziko zaio ebazteko epea etenda geratuko dela eraginpekoen alegazioak edo onarpena jaso arte edo horiek aurkezteko emandako epea bukatu arte.

#### **44. artikulua.- Ebazteko epea eta isiltasunaren esanahia**

1. Eskaera jasotzen denetik gehienez hamabost eguneko epean egin eta jakinaraziko da ebazpena, aurreko artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

2. Eskatutako informazioaren bolumenak edo konplexutasunak ezinezkoa egiten badu aipatutako epea betetzea, epe hori hamabost egunez luzatu ahal izango da. Eskatzailea jakinaren gainean jarri beharko da, ebazteko ezarritako epearen barruan.

3. Administrazioa behartuta dago eskaera aipatutako epean ebatzi eta interesdunari jakinaraztera.

4. Eskaera ezetsizat joko da, aurkezten denetik hamabost eguneko epean horri buruzko ebazpen espresurik jakinarazten ez bada.

5. Informazio-eskaera jaso duen erakundeak ez badauka informazio hori baina bai lege honen arabera Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duen erakunderen batek, orduan hari bidaliko dio eskaera hamar eguneko epe berean, erantzuteko epea eten egingo da, eta jakinaren gainean jarriko du eskatzailea. Bidalketa jasotzen duen erakundeak lege honetan aurreikusita dagoen moduan izapidetu eta ebatzi beharko du eskaera.

#### **45. artikulua.- Ebazpena eta eskatutako informazioa ematea**

1. Ebazpena, edukiari eta irispideari dagokionez osorik onartzearen aldekoa denean izan ezik, arrazoitua izango da, idatziz egingo da eta indarrean dagoen legeriak onartzen duen edozein bitartekoren bidez jakinaraziko da.

2. Eskabide baten ebazpena osorik edo zati batean baiestekoa bada, eskatutako informazioa erantsiko zaio ebazpenari, edo, lege honetan ezarritakoaren arabera informaziora iristeko besteko modalitaterik baldin badago, informazio horretara berehalakoan nola iritsi adieraziko da; eskubide hori benetan balia daitekeela bermatu beharko da horrela, informazio osora ahalik eta eperik laburrenean iristeko bide emanez.

3. Hirugarren batzuei eragiten dien informazio baterako irispide osoa edo partziala ematen badu ebazpenak eta hirugarren horiek kontra azaldu badira aurreko gorabeheran, informaziora ezin izango da benetan iritsi, harik eta hirugarrenek ebazpenaren aurka administrazio-bidetik edo jurisdikzio-bidetik jotzeko daukaten epea pasatu arte errekurtsorik jarri gabe, edo, errekurtsua jarriz gero, ebazpen irmoa eman arte, eskatzaileak informazioa jasotzeko eskubidea duela baieztatuz.

4. Eskatutako informazioa ez bada Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren jarduera-esparrukoa baina eskaera jaso duen erakundeak jakin baldin badaki zein den administrazio eskuduna, esan egingo dio eskatzaileari, eskaera ukatzeko ebazpenean, eskaera hari egin ahal izan diezaion.

Horretarako, euskal sektore publikoa osatzen duten administrazioek lankidetzaz bidezko jarriko dituzte, arrazoi hori dela-eta sektore publiko desberdinen aurrean eskaerak egin beharrik dakartzan administrazio-kargak murrizteko.

5. Ebazpenaren edukiak, gutxienez, honako hauek jasoko ditu:

- a) Eskabidea zein egunetan jaso den.
- b) Eskabidea izapidetzea onartu ez den.
- c) Eskabidea nolabait zehaztu edo zuzendu beharra dagoen.

#### **46. artikulua.- Aurkaratze-araubidea**

1. Informazio publikora iristearen arloan emandako ebazpenek bukaera ematen diote administrazio-bideari, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioan jar daiteke, zuzenean, haien aurkako errekurtsua; hargatik eragotzi gabe, hala badagokio, aukerako berraztertze-errekurtsua jartzea.

Nolanahi ere, Eusko Legebiltzarrak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, Arartekoak, Aholku Batzorde Juridikoak, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak eta Lan Harremanen Kontseiluak informazio publikora iristeari buruz emandako ebazpenetan administrazioarekiko auzi-errekurtsua baino ezingo da jarri.

2. Bestela, lege honetan araututako prozeduraren arabera ematen den informazio publikora iristearen arloko ebazpen espresu edo presuntzizko ebazpen ororen aurka, aukeran, erreklamazioa jarri ahal izango da, administrazioarekiko auzibidean aurkaratu aurretik, betiere honako hauek betez:

a) Erreklamazioa jarri ahal izango da Gardentasunaren Euskal Agentzian, organo independente horrek bere gain hartzen baititu Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritako eginkizunak.

b) Aurkaratzen den egintza jakinarazten den edo administrazio-isiltasunaren ondorioak hasten diren egunaren hurrengo egunetik hilabeteko epea egongo da erreklamazioa jartzeko.

c) Erreklamazioa izapidetzeko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak errekursoei buruz ezartzen duenari jarraituko zaio.

d) Hirugarrenen eskubide edo interesen babesa hartzen denean oinarritzat informaziora iristea ukatzeko, edo informazioa administrazioaren isiltasun bidez ukatzen bada eta Agentziak kalteren bat egon litekeela ikusten badu, entzunaldiaren izapidea bermatuko zaie kaltetuak izan litezkeen pertsoneri – izapide hori lehenago egin ez bada–, eskubidez komeni zaiena alega dezaten.

e) Ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da. Epe hori pasatzen denean, ezetsizat joko da erreklamazioa.

f) Ematen diren ebazpenak errekurso-jartzaileari eta interesdunei jakinaraziko zaizkie; dauzkaten datu pertsonalak kendu ondoren, bitarteko elektronikoen bidez argitaratuko dira, eta Gardentasunaren Euskal Agentziaren lehendakariak jakinaren gainean jarriko du Arartekoa.

## **LAUGARREN KAPITULUA. ZEHAPEN-ARAUBIDEA**

### **47. artikulua.- Zehapen-araubidea.**

1. Titulu honetan gardentasunari eta informazio publikora iristeari lotuta ezartzen diren betebeharrak ez betetzea ondorengo artikuluetan xedatutakoaren arabera zehatuko da, hargatik eragotzi gabe beste mota bateko erantzukizunak ere izatea.

2. Kapitulu honetan tipifikatutako arau-hausteak zehatzeko ahala kapituluan bertan eta administrazio publikoen araubide juridikoaren arloko araudian xedatutakoaren arabera baliatuko da eta, bereziki, zehapen-prozedura administratiboan xedatutakoaren arabera; araudi horretan arautuko da, halaber, arau-hauste eta zehapen horien preskripzioari dagokion guztia ere.

Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateetako langileen diziplinazko arau-hausteez eragindako prozesuak

kasuan kasu aplikagarri den funtzionarioentzako, estatutupeko langileentzako edo langile lan-kontratudunentzako prozeduraren arabera bideratuko dira.

#### **48. artikulua.- Erantzuleak.**

1. Egindako arau-hausteen erantzule dira, baita arau-haustea arauak ez betetze hutsa bada ere, lege honetan tipifikatutako ekintzak edo ez-egiteak burutzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak –edozein motatakoak direla ere–.

2. Zehazki, honako hauek dira kapitulu honetan ezarritako diziplinazko arau-hausteen erantzuleak:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko goi-karguduntzat edo zuzendaritzako langiletzat hartzen direnak, Euskal Sektore Publikoaren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Legean xedatutakoaren arabera, edo euskal sektore publikoko gainerako entitateetako goi-kargudunak eta zuzendaritzako langileak, azken horiei lege hau aplikagarria bazaie.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileak, eta, hala badagokio, euskal sektore publikoko gainerako entitateetakoak, azken horiei lege hau aplikagarria bazaie.

3. Halaber, kapitulu honetan ezarritako arau-hauste administratiboen erantzule dira informazioa ematera behartuta dauden subjektu pribatuak eta zuzenbide publikoko korporazioak, gardentasunari eta informazio publikora iristeari buruzko betebeharrak aplikagarri zaizkien entitate pribatuak eurak, eta, modu subsidiarioan, entitate pribatu horietan erantzule eta jardule diren pertsona fisiko edo juridikoak.

#### **49. artikulua.- Diziplinazko arau-haustek**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateen zerbitzura diharduten goi-kargudunei, zuzendaritzako langileei edo langileei lepora dakizkiekeen arau-hauste oso larriak dira honako hauek:

a) Titulu honen bigarren kapituluan –publizitate aktiboari eta gardentasunari buruzkoan– zerrendatzen den informazioa argitaratzeko betebeharra ez betetzea, baldin eta bi urteko epean hiru aldiz baino gehiagotan ez bazaio jaramonik egin Gardentasunaren Euskal Agentziak esanbidez egindako eskaerari.

b) Aurkeztu diren erreklamazioetan informazioa eskuratzeari dagokionez Gardentasunaren Euskal Agentziak emandako ebazpenak ez betetzea behin eta berriz, hiru aldiz baino gehiagotan, bi urteko epean.

2. Subjektu horiei berei lepora dakizkiekeen arau-hauste larriak dira:



a) Lege honetan publizitate irekiari eta datuak irekitzeari buruz eskatutako informazioa argitaratzeko betebeharra ez betetzea behin eta berriz, urtebetean bi aldiz baino gehiagotan.

b) Informazioa eskuratzeari dagokionez Gardentasunaren Euskal Agentziako lehendakariak emandako ebazpenak ez betetzea behin eta berriz, bi aldiz bi urteko epean.

c) Informazioa egiazkotasun-printzipioaren ondoriozko eskakizunak bete gabe ematea, lege honetan gardentasunari eta informazio publikoaren kalitateari buruz ezarritakoaren arabera.

d) Behin eta berriz eta justifikatu gabe, urtebetean bitan baino gehiagotan, ezezkoa ematea Gardentasunaren Euskal Agentziaren aurrean aurkezten diren erreklamazioak izapidetze-bidean bere eginkizunak gauzatzeko lankidetzara eskatzean.

e) Behin eta berriz eta justifikatu gabe, urtebetean bitan baino gehiagotan, ez betetzea informazio publikora iristeko eskabidea epe barruan ebazteko betebeharra.

3. Subjektu horiei berei lepora dakizkiekeen arau-hauste arinak dira:

a) Ez betetzea titulu honetan publizitate aktiboari eta datuen irekierari buruz ezarritako obligazioak, informazioaren kalitateari buruzkoak barne, lege honetan ezarritakoaren arabera.

b) Ez betetzea, justifikaziorik gabe, informazio publikora iristeko eskabidea epe barruan ebazteko betebeharra.

4. Aurreko ataletan jasotako arau-hauste oso larriak, larriak eta arinak sektore publikoko langileei leporatzen zaizkienean, aplikagarria den araudiari buruzkoak direla ulertuko da, langilea funtzionarioen, estatutupeko langileen edo langile lan-kontratudunen araubidearen mende dagoen kontuan hartuta.

## **50. artikulua.- Informazioa ematera behartuta dauden pertsonen arau-haustek**

1. Informazioa ematera behartuta dauden subjektu pribatuei eta zuzenbide publikoko korporazioei lepora dakizkiekeen arau-hauste oso larriak dira honako hauek:

a) Ez betetzea, bi urtean hiru aldiz baino gehiagotan, Gardentasunaren Euskal Agentziak egindako errekerimendu bidez publizitate aktiboaren eta datuak irekitzearen arloan eskatu zaien informazioa emateko betebeharra, edo Agentziak informaziora iristeko arloan emandako ebazpen bat betetzeko eskatu zaien informazioa emateko betebeharra.

b) Arau-hauste larrietan berrerortzea. Berrerortzea izango da urtebetean mota bereko arau-hauste bat baino gehiago egitea, ebazpen irmoz horrela deklaratu denean.

2. Subjektu horiei berei lepora dakizkiekeen arau-hauste larriak dira:

a) Informazio-eskaerari ez erantzutea.

b) Informazioa egiazkotasunaren printzipioak dakartzan betebeharrak bete gabe ematea, lege honetan gardentasunari eta informazio publikoaren kalitateari buruz ezarritakoaren arabera.

c) Huts-egite arinetan berrerortzea. Berrerortzea izango da urtebetean mota bereko arau-hauste bat baino gehiago egitea, ebazpen irmoz horrela deklaratu denean.

3. Subjektu horiei berei lepora dakizkiekeen arau-hauste arinak dira:

a) Informazioa ematen atzeratzea, justifikaziorik gabe.

b) Informazioa partzialki edo eskatu ez bezala ematea, lege honek baimendutako kasuetatik kanpo.

c) Lege honetan gardentasunari eta informazio publikoaren kalitateari buruz ezarritakoa bete gabe ematea informazioa.

## **51. artikulua.- Diziplinazko zehapenak**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateen zerbitzura diharduten langileei leporatzekoak diren arau-hausteei kasuan kasu aplikagarri den diziplina-araudiaren arabera dagozkien zehapenak ezarriko zaizkie, langilea funtzionarioen, estatutupeko langileen edo langile lan-kontratudunen araubidearen mende dagoen kontuan hartuta.

2. Arau-haustek goi-kargudunei eta zuzendaritzako langileei leporatzekoak direnean, arau-hauste arinak ohartarazpena eginda zehatu ahal izango dira.

3. Goiko ataleko kasu berberetan, honako zehapen hauek ezarri ahal izango dira zehapen larrien kasuan:

a) Araua ez duela bete adieraztea eta dagokion aldizkari ofizialean argitaratzea.

b) Zerbitzutik kentzea soldatarik gabe, hilabetetik 6 hilabetera bitartean.

4. Goiko bi ataletako kasu berberetan, honako zehapen hauek ezarri ahal izango dira zehapen oso larrien kasuan:

a) Araua ez duela bete adieraztea eta dagokion aldizkari ofizialean argitaratzea, eta zerbitzutik kentzea soldatarik gabe utziz urtebetean 6 hilabetez.

b) Kargutik kentzea.

5. Zehapen horiek ezartzeko eta mailakatzeko, gertaeren larritasuna eta ondorioa hartuko da kontuan, proportzionaltasunaren printzipioaren arabera.

## **52. artikulua.- Informazioa ematera behartuta dauden entitateei jarriko zaizkien zehapenak**

1. Informazioa ematera behartuta dauden entitate pribatuei eta zuzenbide publikoko korporazioei lepora dakizkiekeen arau-hauste arinak ohartarazpena eginda edo 200 eta 5.000 euro arteko isuna jarrita zehatuko dira.

2. Arau-hauste larriak 5.001 eta 30.000 euro bitarteko isuna jarrita zehatuko dira.

3. Arau-hauste oso larriak 30.001 eta 400.000 euro bitarteko isuna jarrita zehatuko dira.

4. Arau-hauste larrietan edo oso larrietan, zehapen osagarri gisa ezarri ahal izango da emandako diru-laguntza osorik edo neurri batean itzultzea edo, hala badagokio, kontratua, hitzarmena edo ezarritako lotura suntsiaraztea.

5. Zehapen horiek –osagarriak barne– ezartzeko eta mailakatzeko, gertaeren larritasuna eta ondorioa hartuko da kontuan, proportzionaltasunaren printzipioaren arabera.

## **53. artikulua.- Prozedura**

1. Kapitulu honetan jasotako zehapenak ezartzeko, zehapen-prozeduran jasotako xedapenei jarraituko zaie, edo, entitateen zerbitzura diharduten langileei leporatzekoak diren arau-hausteetan, kasuan kasu aplikagarria den funtzionarioen, estatutupeko langileen edo langile lan-kontratudunen diziplinazko araubideari.

2. Lege honetan ezarritako diziplina-ahala baliatzeko prozedura, ustezko erantzulea goi-kargudun bat bada, Gobernuako kideen eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioako goi-karguen bateraezintasun-araubideak ezarritakoari lotuko zaio.

3. Informazioa ematera behartuta dauden subjektu pribatuen eta zuzenbide publikoko korporazioen arau-hauste administratiboak zehatzeko ahala baliatzeko prozedurak administrazio-prozedura erkidearen legerian ezarritakoa beteko du.

4. Betiere, ofizioz emango zaio hasiera prozedurari, eskumena duen organoak erabakita, bai bere kabuz edo bai goragokoaren aginduaren, beste organo batzuen eskaera arrazoituaren edo herritarren salaketaren ondorioz.

5. Gardentasunaren Euskal Agentziak, titulu honetan ezarritako arau-hauste gisa kalifika daitekeen ez-betetzeak ikusten dituenean, prozedura hasteko eskatuko du. Azken kasu horretan, organo eskuduna prozedura irekitzera eta prozeduraren emaitza Kontseiluari jakinaraztera behartuta egongo da.

#### **54. artikulua.- Zehatzeko ahala**

1. Diziplinazko zehapenak jartzeko eskumena subjektu arau-hauslearen administrazio edo entitateari aplikagarria zaion araudian ezarritako organoarena da edo, hala badagokio, arau-hauslea lotuta dagoen administrazio edo entitatean aplikagarria den araudian ezartzen den organoarena.

2. Arau-hausteak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko goi-karguei eta zuzendaritzako langileei leporatzekoak badira, arau-hauslea zein sailen mendekoa den, sail horretako titularrak baliatuko du zehatzeko ahalmena, zehapen arin eta larrien kasuan, eta, aldiz, Gobernu Kontseiluak, zehapen oso larrien kasuan.

Euskal sektore publikoko gainerako entitateetako goi-kargu eta zuzendaritzako langileen kasuan, zehatzeko ahalaren titulartasuna entitatearen barne-araudiak berak ezarriko du.

3. Arduraduna informazioa ematera behartuta dagoen entitate pribatu edo zuzenbide publikoko korporazioetako batekoa bada, funts publikoen kontura laguntzak edo diru-laguntzak jasotzen dituelako, edo sektore publikoarekin kontratuak edo hitzarmenak dituelako, orduan diru-laguntza edo laguntza publikoa ematen duen edo kontratua edo hitzarmena sinatzen duen saileko titularra izango da eskuduna.

Diru-laguntzak edo laguntza publikoak hainbat sailetatik datozenean, edo kontratua hainbat entitatearen artean sinatzen denean, zenbatekorik handiena eman duen edo prestazioetan edo prezioan kargarik handiena hartzen duen saileko titularra izango da eskumenduna.

Informazioa emateko betebeharra betetzen dituen eginkizun edo ahal publikoen ondorio bada, eginkizun edo ahal horiek gauzatzen diren arloa zein saili dagokion, horko titularra izango da eskuduna.

4. Erantzulea pertsona fisiko edo juridiko bat bada, lege honetan ezarritako betebeharrak guztiak benetan gauzatzeko beharrezkoa den informazio guztia administrazioari emateko betebeharrari jarraikiz, orduan informazioa eman behar dion saileko titularra izango da eskumenduna.

## **55. artikulua.- Zehapenak argitara ematea.**

Lege honetan jasotako arau-hauste oso larri eta larriak egiteagatik jartzen diren zehapenak Gardentasunaren Atarian argitaratuko dira, hargatik eragotzi gabe Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea hala behar den kasuetan, eta, halaber, Gardentasunaren Euskal Agentziaren Lehendakariaren txostenetan jaso ahal izatea.

## **IV. TITULUA. HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA PARTE HARTZEKO PROZESUAK**

### **LEHENENGO KAPITULUA. PARTE HARTZEKO PROZESUEI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK**

## **56. artikulua.- Parte-hartzearen helburua eta egituraketa**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak interesdunek, zenbait interesen ordezkari diren taldeek eta oro har herritarrek gai publikoetan parte har dezaten eta lankidetzan aritu daitezzen bultzatuko du.

2. Aipatutako parte-hartzearen helburua da esku-hartze publikoa behar duten premiak hobeto asebetetzea eta goian aipatutakoak gai publikoei buruzko erabakiak hartzen inplikatzeari.

3. Lege honen ondorioetarako, eta ordenamendu juridikoak gai honetan aitortutako gainerako eskubideei kalterik egin gabe, gai publikoetan parte hartzeko eskubideak honako hauek dakartza:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak abian jarri beharreko programa eta politika publikoen plangintza eta garapena zehazten parte hartzeko eskubidea.

b) Zerbitzu publikoen programa eta politika horien eta kalitatearen jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzeko eskubidea.

c) Xedapen orokorrak landu, aldatu eta berrikusten parte hartzeko eskubidea.

d) Erregelamenduak egiteko ekimenak sustatzeko eskubidea.

e) Irekitzen diren jendaurreko aurkezpenaren eta entzunaldiaren izapideetan alegazioak eta oharrak egiteko eskubidea.

f) Zerbitzu publikoen kalitatea hobetzeko jarduera-proposamenak edo iradokizunak egiteko eskubidea.

g) Herritarren jardueretan Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak lankidetzan eskaini dezaten eskatzeko eskubidea.

4. Eskubide horiek obligazioak ezartzen dizkiete Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitate guztiei.

Nolanahi ere, interes publikoei eragiten ez zaien neurrian edo prozedura publikoak direla-eta baliatzen ez diren heinean, ez dira aplikatuko lege honen aplikazio-eremukotzat hartzen diren erakunde partikular eta entitate pribatuen artean sortzen diren zuzenbide pribatuko harremanetan.

5. Horretarako, parte hartzeko prozesuak egituratu beharko dira, eta prozesu horiek eraginkorrak izan beharko dute politika eta programa publikoak, zerbitzu publikoak eta erregelamenduak egiteko ekimenak ebaluatu, prestatu, aldatu eta berrikusteko. Prozesu horiek, gainera, honako fase hauek aurreikusi beharko dituzte, gutxienez:

a) Parte-hartzeko prozesuaren, bere ezaugarrien eta irismenaren eta hausnarketa eta eztabaida eragiteko beharrezko informazioaren zabalkunde publikoaren faseak.

b) Ikuspegi eta interes-talde desberdinetatik egin beharreko deliberazio- eta kontraste-faseak.

c) Proposamenak egiteko eta adostasunak bilatzeko faseak.

d) Ateratako ondorio eta erabakiak gizarteari bueltan emateko faseak.

6. Herritarrek bakarka edo taldeka hartu ahal izango dute parte, lege honetan aurreikusten diren tresna eta bideei jarraituz.

7. Parte hartzeko modu horiek ez dute inolaz ere gutxituko legez kasuan kasu eskudunak diren administrazio-, ordezkari- eta gobernu-organoen erabakitze ahalmena.

8. Titulu honetan ezarritakoak ez du, inola ere, ez ordeztan ez eragiten indarrean dagoen legerian herritarren parte-hartze edo lankidetzarako aitortzen diren eskubideak zabaltzen dituen beste edozein xedapen. Halaber, titulu honen edukiak ez du aldatzen beste bide edo helburu batzuekin sustatu edo gauza daitekeen herritarren parte-hartzerik.

## **57. artikulua.- Interesdun izatea eta parte hartzeko prozesuak**

1. Parte-hartzearen arloari dagokionez lege honetan biltzen diren eskubideak erabiltzerakoan, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak bermatu egin beharko du irisgarritasun-printzipioa betetzen dela, eta, halaber, herritarren gizarteratzeko eta herritartasun osorako baldintzak segurtatu, tratu-berdintasuna sustatuz herritarren artean zein interesa erakusten duten talde sozialen artean (talde horiek iraunkorrak izan ala ez).

Horretarako, parte hartzeko prozesuak antolatuko ditu, zabalkunde publikoaren bidez, eztabaida eta kontrastea bultzatzeko hainbat ikuspegi eta

interesetatik, adostasunak bilatzeko, eta ondorioak eta hartutako erabakiak arrazoitzeko.

2. Parte-hartzearen izapidea aurreikusita duten prozeduretan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 31. artikuluan adierazitako baldintzak betetzen dituzten pertsonak eta taldeak joko dira interesduntzat.

Ildo horretatik, interesdun izan ahal izango dira entitate, elkarte, gizarterakunde edo taldeak, bai eta egoera jakin baterako sortu direlako nortasun juridikorik ez duten herritarren plataforma, foro edo sareak ere, betiere lege honen aurreko paragrafoetan edo gainerakoetan jasotako eskakizunak betetzen badituzte.

Betiere, interesduntzat hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek eta zenbait interesen ordezkari diren taldeek parte hartzeko eta lankide izateko Erregistroan inskribaturik egonik –lege honetan ezarritakoa–, aitortutako esparruaren arabera, parte hartzeko prozesuan aritu behar direnak.

3. Parte-hartzearen izapidea aurreikusita duten prozedurei hasiera emateko, ekimena sustatzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateak aldeztatik eta behin-behingo zehaztu beharko du zein diren entzunaldiaren izapiderako interesduntzat joko diren herritar eta taldeak. Nolanahi ere, beste interesdun batzuk egiaztatu ahal izango dira gero.

4. Titulu honen bidez parte-hartzeko eskubidea onartua duten prozedurei dagokienez, beste legeren batek kontrakorik xedatzen ez badu, parte hartzeko eskubidea interesdunetara bakarrik mugatu daiteke.

### **58. artikulua.- Zenbait interesen ordezkari diren taldeak**

Lege honen arabera, zenbait interesen ordezkari diren taldeak dira honako hauek:

a) Erakunde kolektiboak: pertsona juridikoak, irabazi-asmorik gabekoak, edozein forma juridiko eta izaera dutenak, interes kolektiboak edo bazkideen interesak defendatzea helburu dutenak –bai orokorrak eta bai sektorialak–, eta jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan egiten dituztenak.

b) Presio-taldeak edo interes-taldeak zentzu hertsian: erakundeak eta pertsonak, edozein estatutu juridiko dutenak, politikak edo xedapenak egiteko prozesuetan edo horien aplikazioan eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren erabaki-hartzeetan eragitea zeregin profesionaltzat dutenak besteak beste eta jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan egiten dituztenak.

c) Hausnarketa-taldeak: jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan egiten dituzten erakunde akademikoak eta ikerketa-erakundeak.

### **59. artikulua.- Parte-hartzea sustatzeko neurriak**

1. Herritarren elkartegintza, parte-hartzea eta garapen komunitarioko lankidetzak-praktika pribatuak edo publiko-pribatuak sustatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak sentsibilizazio- eta prestakuntza-programak sustatu eta egingo ditu, genero-ikuspuntua txertatuta, eta bere zerbitzura diharduten langileei zein herritarrei zuzenduko zaizkie, parte hartzeko prozedurak ezagutu eta erabil ditzaten. Elkarrekin sortzeko ekimenak, elkarrekin kudeatzeko ekimenak, berrikuntza hiritarreko ekimenak eta gizartean balio publikoa sortzeko ekimenak sustatzeko programak ere garatuko dira.

2. Helburu horrekin berarekin, herritarren parte-hartzean eskumena duen sailak herritarrentzako eta herritarren entitateentzako prestakuntza-programak egin eta sustatuko ditu, arreta berezia jarriz lege honetan araututako eskubide, berme eta bitartekoei.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez parte hartzea eta administrazio elektronikoa garatzea sustatuko du, Euskal Sektore Publikoaren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Legean ezarrita bezala. Horretarako, aurrez aurreko deliberazio-bitartekoez gain, interneten edo beste ingurune birtual batzuetan egoki diren informazioaren eta komunikazioaren teknologien garapena eta erabilera sustatuko du.

### **60. artikulua.- Parte hartzeko bitartekoak**

1. Parte hartzeko hainbat bitartekoren bidez gauzatzen dira titulu honetan onartzen diren eskubide eta bermeak, interesdunen, zenbait interesen ordezkari diren taldeen eta oro har herritarren partaidetza legitimatu, bideratu eta egituratzeko.

2. Helburu horrekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak hainbat tresna erabiltzea sustatuko du; besteak beste, inkestak, iritzi-eskeak, kontsulta-foroak, eztabaida- eta kontsulta-guneak, kontsulta orokor edo sektorial ez-lotesleak, kontsulta irekiak, herritarren panelak, herritarren epaimahaiak, partaidetzazko deliberazio-prozesuak eta egoki izan daitezkeen gainerako tresna guztiak.

Horiek guztiak aurrez aurre antolatu ahal izango dira, edo komunikazioaren teknologia egokien bidez, interneten dagoeneko badiren teknologiez eta bestelako batzuez gain (esaterako, telekomunikazio mugikorren gailuetarako garatutakoak).

3. Horretarako, tresna bakoitzari aplikatu beharreko arauak ezarriko dira; era berean, irizpideak ezarriko dira kasu bakoitzean herritarrek parte hartzeko eta haiei laguntzeko tresnarik efektiboena erabiltzeko, eta ahalik eta biztanlerik eta gizarteko interes-talderik gehienengana iristeko ahalik eta kosturik txikienaz, eta plan, programa edo proiektuak duen garrantziaren proportzio berean.



4. Prozedura guztietan, nolakoa den plan, programa edo proiektuaren garrantzia eta konplexutasuna, halakoak izan beharko dute epeek, partaidetza-mailak, erabakitze-mailak eta partaidetza horren ondorioek.

#### **61. artikulua.- Parte hartzeko prozedura eta bitartekoen berme eta eskubide komunak**

1. Benetan parte hartzea bermatzeko, pertsona eta taldeek berme hauek izan beharko dituzte parte hartzeko prozeduretan:

a) Aukera izango dute garaiz jakiteko interesatzen zaizkien prozeduretatik zeintzuk izapidetu daitezkeen, eta zer bide gaitu den prozedura horietan parte hartzeko.

b) Ezagutu beharko dute zer helburu lortu nahi den parte hartzeko prozesuarekin, nola parte hartu prozesu horretan, eta zer eskubide eta berme dituzten.

c) Eskubideak gauzatzeko garaiz iritsi beharko zaie informazioa, informazio publikoaren gardentasun- eta kalitate-estandarrei buruz lege honek ezarritakoak beteta –batik bat, informazioa ulergarria eta eskuragarria izan dadila–, baliabide propioak erabiliz kontrastatu ahal izan dezaten.

d) Kasuan kasu parte-hartzaileen edo adituen artean sortzen den iritzi-truke, eztabaida edo deliberazioetan parte hartu beharko dute, lankidetzat bitarteko bakoitzerako ezarritako moduen eta bermeen arabera.

e) Plan, programa, proiektu edo xedapen orokorren gainean alegazioak jarri edota oharrak eta proposamenak egiteko aukerak irekita daudenean, modua izan beharko dute aukera guztiak erabiltzeko.

f) Parte-hartzaileak eskatuz gero, administrazioak, ahal den guztietan, isilpean gorde beharko du haren identitatea, parte hartzeko erabiltzen den tresnaren arabera.

Hori ez zaie aplikatuko lege honetan aipatzen diren pertsona juridiko, entitate, elkarte, gizarte-erakunde, talde, plataforma, foro, herritarren sare edo zenbait interesen ordezkari diren taldeei.

g) Ezagutu beharko dute zer taldek eta, gutxienez labur-labur, zer pertsonak parte hartu duen parte hartzeko prozesuan, eta zeintzuk diren haien ekarpen nagusiak. Parte hartzeko tresnaren arabera, bide emango da parte hartzen duten beste talde edo pertsona batzuekin adostasunera heltzeko, eztabaida edo debatean aplikatu beharreko arauen arabera.

2. Helburu berarekin, eskubide hauek aitortzen zaizkie:

a) Dagokion erakunde publikoak, ukitutako gainerako interes publikoekin batera, kontuan har ditzan jarritako alegazioak edo azaldutako ohar eta proposamenak.

b) Prozeduraren batean parte hartu bada, prozedura horretako behin betiko emaitza jakinarazi dakien edo argitaratu dadin. Hartzen den erabakia parte hartzen duten pertsona eta taldeei jakinarazi beharko zaie, eta haren zioen azalpenean eta gogoetetan informazioa jaso beharko da partaidetza publikoko prozesuari buruz eta partaideen ekarpen nagusiak onartzeko edo ukatzeko moduari buruz.

3. Lege honetan parte hartzeari buruz arautzen diren eskubideek ez dute inongo araubiderik mugatuko, araubide horrek eskubideok zabalitzen baditu.

## **62. artikulua.- Parte-hartzeari eta lankidetzari buruzko txostena**

1. Herritarren parte-hartzean eskumena duen sailak urteko txostena egingo du, lege hau betetzeko garatu diren herritarren parte-hartzerako bitartekoei buruz eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeek bitarteko horiez egindako erabilerari buruz.

Txostenean, herritarren parte-hartze maila, erabilitako bitartekoak eta emaitzak ebaluatzeko informazio garrantzitsua jasoko da, eta herritarren parte-hartzeko bitartekoak hobetzeko prozesuak ezartzeko beharrezko diren neurri guztiak hartuko dira kontuan.

2. Txosten hori lege honetan jasotako Gobernu Irekiaren Plataforman argitaratuko da, eta Legebiltzarrerara igorriko da, horren berri eduki eta kontuan har dezan, egoki iruditzen zaizkion ondorioetarako.

## **BIGARREN KAPITULUA. HERRITARREN PARTE HARTZEARI BURUZKO ESKUBIDE ZEHATZAK**

### **63. artikulua.- Politika publiko eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzen parte hartzeko eskubidea**

1. Interesdunen, zenbait interesen ordezkari diren taldeen eta oro har herritarren parte-hartzea sustatuko dute lege honen arabera Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeek. Horretarako, aldian-aldian eta lege honetan aurreikusitako moduan galdetuko diete zer gogobetetze-maila duten ematen zaizkien zerbitzu publikoei dagokienez eta aurre-ebaluazioaren edota jarraipen- edo emaitza-ebaluazioei dagokienez.

2. Kontsulta horien emaitzei, berriz, ahalik eta publizitaterik handiena eman beharko zaie, administrazioak bere jarduerari zabalkundea emateko erabiltzen dituen euskarriak erabiliz.

### **64. artikulua.- Xedapen orokorrak prestatzen, gobernuko plangintza egiten eta jarduera garrantzitsuetan parte hartzeko eskubidea**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ekarpenak edo iradokizunak jasotzeko bideak mantenduko ditu, elkarri eragin diezaieten interesdunek, zenbait interesen ordezkari diren taldeek eta oro har herritarrek alde batetik, eta xedapen orokorrak sustatzen dituen sailak bestetik. Ekarpen

eta iradokizun horiek kontuan hartuko ditu izapidetzeaz arduratzen den organoak; modu arrazoituan onartu edo ukatu ahal izango ditu, eta, ondoren, erabaki horien berri emango die sustatzaileei.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoak ez du ordeztzen jendaurreko entzunaldiaren izapidea, izapide hori arauzkoa denean aplikatu beharreko araudiaren arabera, eta parte-hartzailea ere ez du prozedurako interesdun bilakatzen.

2. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak parte-hartzea sustatuko du gobernuaren plangintza prestatzen eta jarduera garrantzitsuak diseinatzeko, bai eta plan eta jarduera horien inplementatze-fasean ere.

Xede horrekin, administrazioak kontsultaldi bat irekiko du prestatze- eta diseinatze-fase horretan, Gobernu Kontseilura onartzeko bidali aurretik. Administrazioak proposamenak aztertuko ditu, eta proposamen-egileei jakinaraziko die zer erabakitzen duen haiei buruz, bere erabakia arrazoituta.

Era berean, betearazpen-fasean, parte hartzeko gune ireki batzuk egongo dira, plan eta jarduera aipagarri horien aurrerapausoen berri emateko eta ekimen horiei buruz herritarrek dituzten ikuspegi edo balioespenak jasotzeko.

5. Behar denean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak aholkularitza zientifikoa eta aditua sartuko du artikulua honek aipatzen dituen partaidetza-prozesuetan.

## **65. artikulua.- Erregelamenduak egiteko ekimenak sustatzeko eskubidea**

1. Hautesle-errolan jasota dauden eta euskal herritarren kondizio politikoa duten herritarrek nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek eta zenbait interesen ordezkari diren taldeek parte hartzeko eta lankide izateko Erregistroan inskribatuta dauden zenbait interesen ordezkari diren taldeek eskubidea izango dute erregelamendu-ekimenak bultzatzeko, beren eskubide eta interes legitimoak, kolektiboak, bazkideenak edota ordezkatzeko dituzten pertsonenak ukitzen dituzten gaiak buruz.

2. Salbuetsita geratzen dira Eusko Legebiltzarrak izapidetu beharreko lege-proposamenak aurkezteko herri-ekimenaren bidez izapidetzeko aukerarik ez duten gaiak, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuari Jaurilaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18. artikulua a) eta c) letren bidez aitortzen zaion erregelamenduak egiteko eta ekimena hartzeko ahaletik kanpo geratzen direnak ere.

3. Herritarrek proposatzen duten ekimen batentzako atxikimendu-adierazpenak jasotzen hasi baino lehen, bultzatzaileek ekimen hori erregistratu egin beharko dute Eusko Jaurilaritzan herritarren partaidetza gainera eskumenak dituen sailean, testu baten bidez, zeinak jasoko baititu proposatzen

den testua, legegintzako herri-ekimenei eskatzen zaizkien memoriak eta informazio guztia. Horrezaz gain, lege honetan arautzen diren interesen ordezkari diren taldeen kasuan, egiaztatu behar dute ordezkatzeko duten taldearen izenean dihardutela. Hala ere, azken kasu horretan ere, Eusko Legebiltzarrean izapidetu beharreko lege-proposamenak aurkezteko herri-ekimena arautzen duen legean ezarritako eskakizun guztiak aplikatu beharko dira ekimenaren osaerari, erantzukizunei, zuzentzeko eskubideei edota ekimena bera atzera botatzeko eta ekimena bultzatzen duen batzordearen gainerako alderdiei dagokienez.

4. Aurreko paragrafoan azaltzen den informazioa jaso eta hogeita hamar egunera, Eusko Jaurlaritzan herritarren partaidetza-gaietan eskumenak dituen sailak:

a) Herritarren ekimena erregistratu eta argitaratuko du, erregistro-zenbaki bakarraz.

b) Berrespen bat bidaliko dio ekimena bultzatzen duen batzordeari.

c) Egoki iritziz gero, behar diren azterlan eta txostenak eskatu ahal izango dizkie Jaurlaritzako sailei, batez ere ekimenaren onargarritasunari, hura burutzeko aukerei eta haren kostuari buruz.

d) Akordio-proposamen bat bidaliko dio Gobernu Kontseiluari, hurrengo paragrafoan adierazten den edukiaz.

5. Azterlan eta txostenak ikusirik, Eusko Jaurlaritzak aztertu egingo du jaso duen dokumentazioa. Ekimena erregistratu eta beste hogeita hamar eguneko epean, adierazi beharko du ea, Eusko Legebiltzarrean izapidetu beharreko lege-proposamenak aurkezteko herri-ekimena arautzen duen legeak ekimenak ez onartzeko aurreikusitako zioetan oinarriturik, ekimena onartu behar den ala ez, lege honetan aurreikusitako moduan izapidetzeko. Berdin egingo du erregelamenduzko herri-ekimen bat aurkeztu aurretik gai berari buruzko erregelamendu-ekimen bat izapidetzen hari bada, halakotzat hartuz Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 5. artikuluan ezarritako prozedura hasteko agindua emana duena.

Ondorio guztietarako, ematen den ebazpena bidaliko zaio ekimena bultzatzen duen batzordeari, jasotako azterlan eta txostenekin batera; behar izanez gero, jakinaraziko zaio zergatik ez den onartu ekimena, eta zer errekurtso judizial eta estrajudizial jar dezakeen. Ebazpen hori, bestalde, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, bai eta aurreko paragrafoan azaltzen den herritarren erregistroan ere, non adieraziko baita zein egunetan jakinarazi zaion ebazpena ekimena bultzatzen duen batzordeari.

6. Behin proposamena onartu eta gero, Eusko Jaurlaritzan herritarren parte-hartzearen gaineko eskumenak dituen sailak horren berri emango dio Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeari, neurriak jar ditzan sinadurak biltzeko prozedura gainbegiratzeko, Eusko Legebiltzarrak izapidetu beharreko

lege-proposamenak aurkezteko herri-ekimena arautzen duen legean xedatutakoaren arabera.

7. Eusko Jaurlaritzak ziurtagiria jasotzen duenean, zeinaren bidez egiaztatuko baita Eusko Legebiltzarrean izapidetu beharreko lege-proposamenak aurkezteko herri-ekimena arautzen duen legeak eskatzen duen gutxieneko sinadura-kopurua lortu dela, horren berri emango dio herritarren ekimenaren xedeko eskumenak dituen sailari, jaso eta hilabeteko epean ebazpena eman dezan izapidetzen hasteko agindua emateko, Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 5.1 artikuluan eskatzen den gutxieneko edukiaz.

Ebazpena eman eta gero, testua bi hizkuntza ofizialetara itzuliko da, itzuli behar bada; gero, testua izapidetuko da, aurretik onartutako xedapen-proiektuetarako aurreikusten den prozesuari jarraiki; betiere, lege horretako 7. artikulutik 11.era bitarteko artikuluen arabera, eta negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak betez.

8. Dagokion organoak xedapen orokorren proiektua onartu baino lehen, bultzatzaileek aukera izango dute herritarren ekimena aurkezteko entzunaldi publiko batean; entzunaldi horretan, adierazi ahal izango dute zer uste duten prozeduran zehar kontsultatutako organismo eta eragileek proposatutako aldaketei buruz.

9. Ikusirik zer izapide egin diren eta zer txosten, kontsulta, entzunaldi eta bestelako izapide bete diren, izapidetzeaz arduratzen den sailak organo eskudunari proposamen bat helaraziko dio, zeinak jasoko baititu azalpena eta abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 12. artikuluan aurreikusitako dokumentuak (2003 Legea, Xedapen orokorrak egiteko prozedurarena), organo horrek erabaki dezan onartu ala ez, eta:

a) Xedapen orokor modura, testu artikulatu bat proposatuko du, prozeduran egokitzat jo diren aldaketekin; hala badagokio, lege-aurreproiektutzat jotzeko proposatuko du, arestian adierazitako legearen 13. artikuluan aurreikusitako moduan.

b) Herritarren ekimena ezesteko proposatuko du.

10. Proposamen-egileei jakinaraziko zaie zer erabaki duen organo eskudunak herritarren ekimenari buruz.

11. Eusko Legebiltzarrean izapidetu beharreko lege-proposamenak aurkezteko herri-ekimena arautzen duen legean eskatzen diren betekizun guztiak bete eta proposamena 5. paragrafoan xedatutakoaren arabera onartzen denean ordainduko dira proposamena bultzatzen duen batzordeak proposamena hedatzen eta sinadurak biltzen egindako gastuak.

12. Herritarren ekimena onartzen ez denean ez direlako betetzen hura erregulatzen duen arategiak aurreikusitako baldintza guztiak, sinatzaileek

eskatuta, ekimen hori eskaera bilakatu ahal izango da administrazioarentzat, hura erregulatzeko duen arautegiak ezarritako baldintzetan, baldin eta eskaera bilakatzeko baldintzak betetzen baditu.

Horixe bera aplikatuko da ekimena onartu bai, baina gutxieneko sinadurak biltzen ez dituenean ere.

#### **66. artikulua.- Herritarren jardueretan Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak lankidetzak eskaini dezala eskatzeko eskubidea.**

1. Euskadin bizi direnek Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak lankidetzak eskaini dezala eskatzeko eskubidea dute, Euskal Autonomia Erkidegoan herritarren parte-hartzea sustatzen duten irabazi-asmorik gabeko jarduerak egiteko.

2. Proposamena zeri buruzkoa den, gai horretan eskumena duen sailera bidaliko da, edo, subsidiarioki, herritarren parte-hartzearen arloan eskumena duen sailera. Eskabide horri, besteak beste, zer eta nola egin nahi den azaltzeko memoria bat erantsiko zaio.

Lankidetzarako eskaera egiteaz gain, sustatzaileek indarrean dagoen legeriaren arabera jarduera gauzatzeko behar diren baimenak lortu beharko dituzte.

3. Sailean eskumena duen organoak, aurkeztutako eskabidea ikusirik, proposatutako jarduera egokia eta bideragarria den aztertu, eta arrazoituta ebatziko du, jarduera garatzeko zer-nolako laguntza eta, hala badagokio, zenbatekoa emango duen zehaztuta, halakorik ematekoa bada. Azken kasu horretan, diru-laguntzen arloko arauak beteko dira, eta, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak ezarritakoa (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua).

4. Proposatutako jarduera ezartzeko edo garatzeko xedez, administrazio publikoaren ekarpena, besteak beste, honako hau izan daiteke: babesle izatea; ondasun publikoak lagatzea, aldi baterako edo noizbehinka; jarduera gauzatzeko laguntza teknikoa ematea; jarduera hedatzen eta ezagutzera ematen laguntzea, erakundeen komunikazio-bideen bitartez; sari, aintzatespen edo aipamenak, edota antzeko beste neurri batzuk.

#### **V. TITULUA.- GARDENTASUNERAKO ETA GOBERNU ONERAKO ORGANISMOAK ETA ERAKUNDEAK**

##### **LEHENENGO KAPITULUA. GARDENTASUNAREN EUSKAL AGENTZIA – GARDENA**

#### **67. artikulua.- Sorrera**

1. Gardentasunaren Euskal Agentzia – Gardena eratzen da. Erakunde autonomoa izango da, eta Administrazio Publikoaren arloko eskumena duen

sailaren bidez izango du harremana Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin.

2. Gardentasunaren Euskal Agentziak izaera juridiko propioa izango du eta baita jarduteko gaitasun osoa ere. Bere zereginak autonomiaz eta independentzia osoz beteko ditu.

### **68. artikulua.- Helburuak**

Gardentasunaren Euskal Agentziaren helburua da jarduera publikoaren gardentasuna sustatzea, publizitate aktiboaren eta datuak irekitzearen betebeharrak betetzen direla zaintzea eta informazio publikora iristeko eskubidearen erabilera babestea.

### **69. artikulua.- Osaera eta funtzionamendua**

1. Hona hemen Gardentasunaren Euskal Agentzia – Gardena osatuko duten organoak:

a) Gardentasunaren Euskal Agentziaren lehendakaritza.

b) Gardentasunaren Euskal Kontseilua, lehendakaritzaren organo aholku-emaile.

### **70. artikulua.- Araubide Juridikoa**

1. Gardentasunaren Euskal Agentziak, lege hau betetzeaz gain, honako beste arau hauek ere bete behar ditu:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko ogasun nagusiaren berezko gaien esparruan erakunde autonomoei aplikagarria zaien arautegi sektoriala.

b) 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena.

c) 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa, eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioei langile-baliabideen arloan aplika dakizkiekeen gainontzeko arauak.

d) 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena. Horrez gain, lege horrek xedatzen ez dituen kontuetan, aplika dakizkiekeen arauak bete beharko ditu zeregin publikoak betetzen ari denean.

2. Gobernu Kontseiluak onartuko du Gardentasunaren Euskal Agentziaren Estatutua, dekretuz. Dekretu horretan ezarriko dira haren antolamendua, egitura, funtzionamendua eta haren zereginak betetzeko behar diren gainontzeko alderdi guztiak.

3. Gardentasunaren Euskal Agentziak ondasun eta bitarteko ekonomiko hauek izango ditu bere helburuak lortzeko:

a) Urtero Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ezartzen diren diru-kopuruak.

b) Agentziaren ondarea osatzen duten ondasun eta balioak, eta horietatik sortutako produktu eta errentak.

c) Legez esleitu ahal zaion beste edozein.

4. Egin beharreko aurrekontu-aldaketak egingo ditu Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Sailak, lege hau indarrean sartzen den egunean Gardentasunaren Euskal Agentzia – Gardena bere jarduerak egiten hasi dadin.

### **71. artikulua.- Gardentasunaren Euskal Kontseilua.**

1. Gardentasunaren Euskal Kontseiluak, Agentziaren organo aholku-emailea eta gogoeta-egilea denez, lege honek esleitzen dizkion eskumen guztiak baliatuko ditu, eta, horiez gain, legea garatzeko egiten diren arauak ematen dizkiotenak.

2. Hona hemen Kontseiluaren osaera:

a) Gardentasunaren Euskal Agentziako lehendakaria. Bera izango da agentziaren Kontseiluko lehendakaria ere.

b) Eusko Legebiltzarreko talde bakoitzeko ordezkari bana, legebiltzarkidea.

c) Herri Kontuen Euskal Epaitegiko ordezkari bat.

d) Arartekoko ordezkari bat.

e) Datuak Babesteko Euskal Bulegoko ordezkari bat.

f) Herri Administrazio eta Justizia Saileko ordezkari bat.

g) Ogasun eta Finantza Saileko ordezkari bat.

h) Lurralde historiko bakoitzeko ordezkari bana.

i) Euskadiko Udalen Elkarteko ordezkari bat, ezarpen handienetakoa duen udalerrri batekoa.

j) Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkari bat.

k) Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteetako ordezkari bat, erregelamenduz ezarri bezala hautatuta.

l) Lege honen aplikazio-eremuan sartzen diren sindikatuen eta enpresaburuaren elkarteetako ordezkari bat.



m) Gizarte zibileko bi ordezkari, Arartekoak proposatuta eta bi urtean behin aldatuz.

3. Kasu bakoitzean, dagokion erakunde edo organoak bideratuko du kide bakoitza izendatzeko prozedura. Gardentasunaren Euskal Kontseiluko kide izateak ez du dedikazio eskusiborik eskatuko, eta ez du ordainsaririk jasotzeko eskubiderik emango, hurrengo artikuluan aurreikusitako salbuespen-kasuetan izan ezik.

## **72. artikulua.- Lehendakaria**

1. Gardentasunaren Euskal Agentziako lehendakaria bost urterako izendatuko da, eta ezingo da aldi hori berritu. Izendapena dekretuz egingo da, eta Herri Administrazio eta Justizia Saileko titularrak proposatuko du ospe aitortua eta gaitasun profesionala duten pertsonen artetik nor izendatu, kargurako proposatutako pertsona horrek Legebiltzarreko dagokion batzordean agerraldia egin ondoren.

Legebiltzarrak bere esku izango du proposatutako hautagaiaren izendapenari betoa jartzea, batzorde eskudunaren bitartez eta gehiengo osoaren erabakiz; horretarako, hilabete naturaleko epea izango du, aurreko paragrafoan aipatutako agerraldia egiten denetik kontatzen hasita. Epe hori amaitu eta Legebiltzarrak esanbidezko adierazpenik egin ez badu, izendapen hori onartutzat joko da.

2. Bere eginkizunak askatasun osoz eta objektibotasunez beteko ditu, eta eginkizun horiek betetzean ez da ezein aginduren mende egongo.

3. Honako hauek izango dira Gardentasunaren Euskal Agentziako lehendakariak kargua uzteko arrazoi bakarrak: bere agintaldia bukatzea, berak hala eskatzea edo Jaurlaritzak hala erabakitzea –Herri Administrazio eta Justizia Saileko titularrak aurrena dagokion prozedura izapidetu ondoren eta ezinbestean Gardentasunaren Euskal Agentziako gainerako kideei entzun ondoren–, bere betebeharrak modu larrian ez betetzea, bere zereginak egiteko ezintasun iraunkorra edukitzea, gerora sortutako bateraezintasuna egotea edo dolozko delitua egiteagatik kondenatua izatea.

4. Gardentasunaren Euskal Agentziako lehendakaria goi-karguduntzat hartuko da, zerbitzu berezietan geratuko da lehen funtzio publikoa betetzen ari baldin bazen, Euskal Autonomia Erkidegoko goi-kargudunen bateraezintasunen araubidearen mende egongo da, eta administrazio goi-kargudunentzat indarrean dauden baldintzen arabera ezarrita dauden ordainsariak jasoko ditu. Aldi baterako baja edo absentzia kasuetan, erakundearen estatutuetan xedatutakoaren arabera ezarriko da ordezkapenen araubidea.

## **73. artikulua.- Kontseiluaren eginkizunak**

Agentziaren helburuak betetzeko, zeregin hauek ezarri zaizkio Gardentasunaren Euskal Kontseiluari:

a) Lege honetan bildutako betebeharrak hobeto betetzeko gomendioak ematea.

b) Euskal sektore publikoko entitateei aholku ematea gardentasunari eta informazio publikora iristeari buruz, eta jendeari gardentasunaren eta informazio-irispidearen arloan dituzten eskubideen berri ematea.

c) Lege honek gardentasunaren eta informazio publikora iristearen arloan garatzen dituen edo legearen xedearekin zerikusia duten arauzko proiektu autonomikoei buruzko aginduzko txostenak egitea.

d) Lege honek biltzen dituen gardentasunaren eta informazio publikora iristearen arloko betebeharrak modu uniformean interpretatzeko irizpideak proposatzea Lehendakaritzari, hark onar ditzan.

e) Lege honek gardentasunaren eta informazio publikora iristearen arloan daukan aplikazio-maila ebaluatzea. Eginkizun horri dagokionez, memoria onartuko du urtero; Legebiltzarraren aurrean aurkeztuko da, eta herritarren eskura jarriko da, argitaratuta.

f) Gomendioen eta jardunbide egokiak garatzeko ildo eta arauen zirriborroak egitea sustatzea gardentasunaren eta informazio publikora iristearen arloan.

g) Prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak sustatzea, lege honek gardentasunaren eta informazio publikora iristearen arloan arautzen dituen gaiak hobeto ezagutzeko.

h) Bere antzeko organoekin lankidetzan aritzea berari dagozkion gaietan.

i) Lege- edo erregelamendu-mailako arau batek esleitzen dizkion gainerakoak, lege honetan ezarritakoekin lotura badute.

#### **74. artikulua.- Lehendakaritzaren eginkizunak**

Zeregin hauek beteko ditu Gardentasunaren Euskal Agentziako lehendakariak:

a) Gardentasunaren Euskal Agentziaren ordezkari instituzional izatea.

b) Lege honek biltzen dituen gardentasunaren eta informazio publikora iristearen arloko betebeharrak modu uniformean interpretatzeko irizpideak jartzea, Kontseiluak proposatuta.

c) Lege honetan bildutako publizitate aktiboaren eta datuak irekitzearen betebeharrak betetzen direla zaintzea. Horretarako, lege honen xedapenen aurkakoak diren jardunbideak eteteko errekerimenduak egin ahal izango dizkie entitateei eta goi-kargudunei edo zuzendaritzako langileei, gai horretako obligazioen aplikazio-esparruaren barruan.



d) Lege honetan araututako informazio publikora iristeko eskubidea baliatzeari dagokionez ezarritako aurkaratze-araubidea aplikatuz eta abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 24. artikulua aplikatuz aurkezten diren erreklamazioak ezagutzea (19/2013 Legea, Gardentasunari, informazio publikora iristeko bideari eta gobernu onari buruzkoa), Administrazio Orokorrak eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko gainerako erakundeek eta toki-erakundeek –nork bere lurraldean– eta haien sektore publikoek informazio publikora iristeko eskubideaz baliatzeari buruz ematen dituzten ebazpenei dagokienez. Lehendakariaren ebazpen horiek administrazio-bidea agortzen dute.

e) Informaziora iristeko eskaerak izapidetu eta ebazten dituzten organoek egiten dizkieten aukerako kontsultei erantzutea.

f) Agentziaren aurrekontuaren aurreproiektua onartzea.

g) Hurrengo artikuluan aipatzen den urteko memoria egitea; Kontseilura bidali, hark onar dezan; Eusko Legebiltzarrera igorri, eta batzorde eskumendunaren aurrean agertu, lege honetan ezarrita dagoen moduan.

h) Lege- edo erregelamendu-mailako arau batek esleitzen dizkion gainerakoak, lege honetan ezarritakoekin lotura badute.

### **75. artikulua.- Legebiltzarrarekiko harremanak eta euskal sektore publikoaren gardentasunari buruzko memoria.**

1. Gardentasunaren Euskal Agentziak bere jardueren garapenari eta lege honetan gardentasunaren arloan ezarritako xedapenen betetze-mailari buruzko txostena egingo du eta Legebiltzarrari helaraziko dio, urtero. Dagokion batzordera agertuko da lehendakaria memoria horren berri ematera, baita agertzeko eskatzen zaion bakoitzean ere.

2. Artikulu honetan aipatzen den euskal sektore publikoaren gardentasunari buruzko memorian, gutxienez, honako hauek jaso beharko dira:

a) Lege honen aplikazio- eta betetze-mailaren ebaluazioa.

b) Lege honetan bildutako betebeharrak hobeto bete daitezen Kontseiluak egindako gomendioak, bai eta gardentasunaren eta informazio publikora iristearen arloan Kontseiluak emandako gomendioak, ildoak eta jarraibide egokiak garatzeko arauak ere.

c) Informazio publikorako irispidearen eta euskal sektore publikoaren gardentasunaren arloan egindako aholkularitza-jarduera.

d) Lege honen III. tituluaren bigarren kapituluan –publizitate aktiboari eta datuak irekitzeari buruzkoan– zerrendatutako informazioa publiko egiteko betebeharra noiz ez den bete, eta ez-betetze horiek zuzentzeko egindako errekerimenduak.

e) Lege honen aplikazio-eremuan sartzen diren entitate eta organismoek erabakita ezezkoa eman zaien informaziora iristeko eskabideen zerrenda, eta ezezkoa emateko oinarritzat hartutako arrazoiak.

f) Informaziora iristeko eskabideei ezezkoa eman zaiela-eta aurkeztutako aurkaratzeen zerrenda, adieraziz kopurua, erreklamazioaren arrazoa eta kasuan kasu lehendakariak hartutako erabakiak.

g) Lege honetan jasotako arau-hausteak direla-eta irekitako eta ebatzitako diziplina- eta zehapen-prozedurak.

h) Eskudunari egoki iruditzen zaizkion gainerako datu, gertaera edo gogoetak, eta, zehazki, lege honetan ezarritako betebeharrak bete ez dituzten organo eta agintarien aipamena.

3. Urteko memoria aztergai duen urtearen hurrengo urteko lehen hiruhilekoaren barruan aurkeztuko zaio Legebiltzarrari, eta Gardentasunaren Atarian argitaratuko da.

#### **76. artikulua.- Lankidetzat Datuak Babesteko Euskal Bulegoarekin**

Gardentasunaren Euskal Agentziak eta Datuak babesteko Euskal Bulegoak elkarrekin erabakiko dituzte irizpideak, informazio publikora iristearen arloko aurkaratze-araubideari buruz lege honetan biltzen diren arauak haien jardueraren eremuan aplikatzeko, interes publikoa neurtzeari eta informazioan datu pertsonalak dituzten interesdunen eskubideak babesteari dagokionez, lege honetan eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera.

Nolanahi ere, interes publikoaren neurketa hori egiteko, oinarritzko legerian ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan, bereziki.

### **BIGARREN KAPITULUA. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HERRITARREK ETA ZENBAIT INTERESEN ORDEZKARI DIREN TALDEEK PARTE HARTZEKO ETA LANKIDE IZATEKO ERREGISTROA**

**77. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek eta zenbait interesen ordezkari diren taldeek parte hartzeko eta lankide izateko Erregistroa.**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek eta zenbait interesen ordezkari diren taldeek parte hartzeko eta lankide izateko Erregistroa sortzen da, non, atal bananduetan, honako hauek inskribatuko diren, borondatez:

a) Zenbait interesen ordezkari diren taldeak, kapitulu honetan aurreikusten diren prozesu parte-hartzaileetan parte hartu nahi badute, beren parte-hartzearen helburu diren interes kolektiboen, bazkideen interesen, interes propioen edo bezeroen, akademikoaren edo zientzialarien interesen ordezkari gisa.

b) Interes hori berbera duten herritarrak, entitateak, elkarteak, gizarte-antolakuntzak, taldeak, plataformak, foroak eta herritarren sareak.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek eta zenbait interesen ordezkari diren taldeek parte hartzeko eta lankide izateko Erregistroa publikoa da. Administrazio Orokorrean herritarren parte-hartzearen arloko eskumena duen sailari atxikita egongo da, eta hango bitarteko materialez eta langileez hornituko da funtzionatzeko.

### **78. artikulua.- Inskripzioa eta Erregistroari emandako informazioa**

1. Arauz zehaztuko dira inskripzio-betekizunak, idazpenen edukia, iristeko moduak eta inskribatutako taldeen eta herritarren parte-hartzea justifikatzen duen ekimen bakoitza bultzatzen duten sailekiko koordinazioa.

2. Talde eta erakunde horiek, inskribatzeko behar diren gainontzeko baldintzak betetzeaz gain, beren interesak non agertzen diren zehaztuko dute (sektore-esparruetan edo esparru orokorretan, lurralde-mailakoetan edo bestelakoetan), sortzen diren deliberazio-prozesuetan beren esku-hartzea errazteko.

3. Halaber, zenbait interesen ordezkari diren taldeak direnean, sustatzaileen edo ordezkarien datuak ere jasoko dira, eta taldearen jardueren finantzazioari buruzko informazioa ere bai.

4. Erregelamendu bidez zehaztuko da talde horiek zer informazio eman behar duten beren finantzazio-iturriei buruz, edo, presio-taldeak edo interes-taldeak zentzu hertsian hartuta badira, zer interes ordezkatzeko dituzten eta beren jarduerak noren kontura egiten dituzten.

Edozein iturritatik jasotako laguntza edo finantzazioaren zenbatekoari buruz informazioa eman beharko da muga batetik gora, eta muga hori ezingo da izan, inola ere, alderdi politikoen finantzazioari dagokionez ezarritako muga baino baxuagoa.

### **79. artikulua.- Inskribatuta egotearen abantailak**

1. Erregistroan erregistratzeak berekin dakar interesdun gisa aitortzea eta lege honetan bilduta dagoen parte hartzeko edozein prozesu garaiz eta zehatz-mehatz jakinarazi beharra, horrela lege honetan bildutako eskubideak oso-oso erabiltzeko. Hala ere, horrek ez du eragingo interesen ordezkari izan arren inskribatuta ez dauden beste talde edo erakundeak edo herritarrak baztertzea.

2. Prozesu horietan parte hartzeak ez du ordezkatzeko entzunaldi publikoaren izapidea, dagokion arautegiaren arabera izapide hori nahitaezkoa bada eta, arautegi berari jarraituz, ordezkari diren taldeak interesdunak baldin badira.

3. Presio-taldeak eta interes-taldeak zentzu hertsian hartuta Autonomia Erkidegoko sektore publikoak ematen dituen laguntza edo diru-laguntzak

eskuratu ahal izateko, ezinbesteko baldintza izango da herritarrek eta zenbait interesen ordezkari diren taldeek parte hartzeko eta lankide izateko erregistroan inskribatuta egotea.

### **80. artikulua.- Lankidetza parte hartzeko beste erregistro batzuekin edo interesen ordezkari diren taldeen beste erregistro batzuekin**

1. Europar Batasuneko Gardentasunaren Erregistroarekin eta parte hartzeko eta lankidetzarako foru- eta udal-erregistroekin lankidetzan aritzea sustatuko da, herritarrek eta zenbait interesen ordezkari diren taldeek hainbat erregistrotan inskribatu beharrik izan ez dezaten, erregistro guztietako informazioa modu koordinatuan iristeko aukera izan dezaten, eta ahalik eta talde eta herritar gehien barne hartu eta erregistra daitezten, hartara hobeto beteko baitira prozesu horietan barneratzea, parte-hartzea eta gardentasuna lortzeko dituzten helburuak.

2. Halaber, beste erregistro batzuekiko lankidetza ere sustatuko da, eta beste horrenbeste egingo da estatuan zein nazioartean herritarren parte-hartzea sustatzeko eta zenbait interesen ordezkari diren taldeen jarduera kontrolatzeko sor daitezkeen antzeko organoekin ere, jardunbide egokiak trukatzeko eta helburuak hobeto betetzen laguntzeko xedez.

## **HIRUGARREN KAPITULUA. EUSKADIKO GOBERNU IREKIAREN PLATAFORMA**

### **81. artikulua.- Gobernu Irekiaren Plataforma**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa eta herritarrak etengabe interakzioan aritzeko lekua da Gobernu Irekiaren Plataforma. Ekintza publikoa modu parte-hartzailean eta erantzukizun partekatuarekin kudeatzera bideratuta dago, eta hor gauzatzen dira gardentasunaren, parte-hartzearen eta kontuak ematearen printzipioak.

2. Plataformaren helburuak izango dira:

a) Aurreko artikuluetan aipatzen den guztiaren berri ematea, hori izango baita Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak modu aktiboan argitara eman beharreko oinarritzko informazioa.

b) Herritarren ekarpenak administrazio-organo eskudunei erakustea eta haiekin koordinatzea.

c) Noranzko biko elkarrizketa bultzatzea, herritarren partaidetza sustatuz, eta partaidetza hori aintzat hartzeko konpromiso publikoa sustatuz, besteak beste, komunikazio elektronikoko informalak erabilia.

d) Interneteko gune batzuk eskaintzea, herritarrak era ireki, publiko, libre eta bitartekotzarik gabeko batean Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikora zuzendu ahal izan daitezten, bai ekimenak proposatzeko, bai administrazioak berak proposatzen ditueni buruz iritzia emateko.

e) Interneten modu aktiboan entzutea, herritarren jakin-nahiak atzemateko eta nahi horiek agenda publikoan sartzeko.

f) Interes publikoko proiektuetan, lankidetzaz publiko-pribatua sustatzea eta herri-ondasuna dakarten herri-ekimenak bultzatzea.

g) Lege honetan esleitzen zaizkion gainerako guztiak.

3. Komunikazio informal elektronikotzat hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateek herritarren eskura jarritako bitarteko elektronikoko jakin batzuen bidez egindako komunikazioak –horien artean, Gobernu Irekiaren Plataforma–, eta inolaz ere administrazio-erregistroen bidez egiten ez direnak; komunikazio horien helburua da informazio orokorra edo espezializatua lortzea, bai eta iritzia eta erantzuna ematea ere kontu orientagarri edo informatibo hutsei buruz, indibidualizatuak izan ala ez, eta ez dute inolako ondorio juridikorik sortzen erantzunaren edukia edo forma dela-eta edo erantzunik ez emateagatik edo denboraz kanpo emateagatik.

4. Komunikazio informal elektronikoen honako ezaugarri hauek izango dituzte:

a) Ez da nortasunaren egiaztapen berezirik eskatuko, eta ez dute baliorik izango erregistro elektronikoko gisa.

b) Ez dira hartzen informazio publikora iristeko eskabidetzat, ez eta administrazioarekiko errekurtsotzat edo erreklamaziotzat ere; hortaz, komunikazioa aurkezteak ez ditu ez hasten ez geldiarazten errekurtsoa edo erreklamazioa jartzeko epeak.

c) Ez dira eskabide, kexa edo iradokizun, beren araudiaren babesean.

d) Erantzunak ez dira lotesleak ez komunikazioak egiten dituenarentzat edo ez erantzuten dituen administrazio edo langileentzat.

e) Bitarteko elektronikoko informalekin bidez bideratzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren atari korporatiboaren espazio informaletan.

5. Atari korporatiboetan herritarrekin komunikazio informal elektronikoen bidez interakzioan jarduteko jarritako bitarteko elektronikoen, betiere, osatu egingo dituzte, eta inola ere ez ordeztu, aplikagarria den araudian ezarritako prozeduraren eta bermeen bidez informazio publikora iristeko eskubidea bermatzeko ezinbestean jarri beharko diren mekanismoak.

## **82. artikulua.- Lankidetzaz beste administrazio batzuekin**

Eusko Jaurlaritzak foru- eta toki-entitateekiko lankidetzaz bitartekoak formalizatzea bultzatu eta sustatuko du, bermatuz herritar guztiek euskal administrazio publiko guztietarako eta beren parte-hartze prozesuetarako irispidea dutela, modu bateratuan, plataforma honen bidez.

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

### **Lehenengo xedapen gehigarria. Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateen eta beren sektore publikoaren eremuan aplikatzea**

1. Autonomia Erkidegoko toki-entitateen gardentasuna eta gobernu ona gai horretan Euskadiko Udal Legean ezartzen denaren arabera arautuko da, hargatik eragotzi gabe xedapen gehigarri honetan ezarritakoa.

2. Udal Lege hori onartu bitartean, lege hau indarrean sartzen denean, toki-erakundeei eta haien sektore publikoari aplikatu beharko zaie III. tituluko hirugarren kapituluaren informazio publikora iristeko eskubideari buruz jasotzen duen erregulazioa.

### **Bigarren xedapen gehigarria. Lurralde historikoetako foru-organismoetan eta haien sektore publikoan aplikatzea**

1. Lege honetan Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoari buruz ezarritakoa aplikatuko da lurralde historikoetako sektore publikoen printzipio, helburu eta xedeetan, batik bat 4, 12, 13, 22 eta 61. artikuluetan ezarritakoari dagokionez.

2. Horretarako, foru-administrazioek politika publikoen plangintza- eta ebaluazio-arloko arauak aplikatuko dituzte, beren antolaketa-arauetan, araubidean eta funtzionamenduan xedatutakoaren arabera; arau horien artean egongo dira, ezinbestean, gobernu-planak egin, argitaratu eta ebaluatzea, eta administrazio-kargak gutxitzeari buruzko ebaluazioak.

3. Lurralde historikoetako foru-aldundiak publizitate aktiboari eta informazio publikora iristeari buruz oinarrizko legerian jasotako arauen mende egongo dira, beren antolaketa-arauek, araubideak eta funtzionamenduak xedatutako moduan. Nolanahi ere, lege honetan jasotako arauak dakartzaten printzipioak aplikatuko zaizkie, beren arauen ezaugarri diren berezitasun formalak eta materialak kontuan hartuta.

4. Lege honetan jaso diren parte hartzeko prozedura eta tresnen berme komunak aplikagarri izango zaizkie, foru-organismoek –beren antolaketa-arauetan, araubidean eta funtzionamenduan xedatutakoaren arabera– parte hartzeko ezartzen dituzten prozesuei.

### **Hirugarren xedapen gehigarria. Gobernu onaren printzipioak aplikatzea Eusko Legebiltzarrak izapidetutako lege-proposamenei.**

1. Ganberako erregelamenduak xedatzen duenarekin bat, Eusko Legebiltzarrak bermatuko du, lege hau zuzenean aplikatu behar ez den lege-proposameneetan eta presaz izapidetu behar ez direnetan, errespetatzen direla gobernu onaren printzipio orokorrak eta lege honetan aitortutako eskubideak; zehazki, honako hauek:

a) Xedapen orokorren lanketan parte hartzeko herritarren eskubidea.



b) Zerbitzu publikoen ebaluazioan parte hartzeko eskubidea.

2. Ondorio horietarako, hargatik eragotzi gabe kasuan kasu eska ditzakeen agerraldiak eta kanpo-txostenak, eta inpaktua ebaluatzeko zerbitzu publiko bat ez duen heinean, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu ahal izango dio aurreko atalean aipatzen diren lege-proposamenen inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa egin dezan, lege honetan ezarri bezala, zehaztuz ebaluazio bakoitzaren irismena, sakontasuna eta analisi-maila, eta aurrez adieraziz ebaluazioa egiteko gutxi gorabehera zenbat denbora behar den.

## **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

**Lehenengo xedapen iragankorra. Lege honek informazio publikora iristeko eskubideari buruz arautzen duena lurralde historikoetako foru-organoen eremuan aplikatzea.**

Lege honen 105. artikulua eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 24. artikulua aplikatuz aurkezten diren erreklamazioak, hain zuzen ere foru-erakundeek eta haien sektore publikoak informazio publikora iristeko eskubidea erabiltzearen arloan ematen dituzten ebazpenekin zerikusia dutenak, Gardentasunaren Euskal Agentziako lehendakariak ebatziko ditu, erakunde horiek eskumen hori beste erakunderen bati esleitu ezean. Hura izango da esparru horretako informazio publikora iristearekin lotutako erreklamazioak ebazteko organo eskuduna, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan bermatu dadin erreklamatzeko eskubidea.

**Bigarren xedapen iragankorra. Lege honek politika publikoen plangintza eta ebaluazioari buruz arautzen duena aplikatzeko egutegia:**

Egutegi hau ezartzen da lege honek politika publikoen plangintza eta ebaluazioari buruz arautzen duena aplikatzeko:

a) Eusko Jaurlaritza berri batek jabetza hartzen duenetik aurrera besterik ez dira exijituko 5. eta 6.1 artikuluetan gobernu-planari eta inpaktuaren aurretiazko ebaluaziori dagokionez aurreikusitako jarduerak.

b) Lege hau indarrean sartzen denetik urtebeteko epean, ebaluatu beharreko esku-hartzeen zerrenda bat zehaztuko du Eusko Jaurlaritzak, 6.2 artikulua adierazitako baldintzetan.

c) Oro har, Eusko Jaurlaritzak onartzen duen planean ezarritakoarekin bat etorritik hasiko dira lege honetan aurreikusitako politika publikoen plangintza eta ebaluazioarekin zerikusia duten gainontzeko jarduerak, betiere lege hau indarrean sartzen denetik urtebeteko epean.

## **AZKEN XEDAPENAK**

### **Azken xedapenetako lehena. Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legea aldatzea**

1.- Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legean, 3 bis artikulua berria erantsi da, eta honela idatzita geratu da:

3 bis artikulua.- Gogoeta- eta prestaketa-lanak

Xedapen orokorrak egiteko prozedura hasteko erabakia hartu aurretik, Eusko Jaurlaritzako sailek gogoeta- eta prestaketa-lanak egin ahal izango dituzte aurrez; horien artean, batik bat, emaitzen eta eragin metatuen ebaluazioa, dauden politika- eta arau-multzoen inpaktuaren ebaluazioa, eta kontuan har daitezkeen arau-aukeren inpaktuaren aurretiazko ebaluazioak.

2.- Aldatu egin da Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 5. artikulua, eta honela idatzita geratu da:

5. artikulua.– Hasteko agindua.

1.- Prozedura hasteko aginduan, egitekoa den arauaren gaia eta helburua aipatuko dira labur-labur, eta alderdi hauen guztien gaineko irizpen bat ere izango da: arauaren bideragarritasun juridiko eta materiala; antolamendu juridikoan izango duen eragina, gai beraren gainean indarrean dauden beste arauen artean berariaz edo zeharka aldaketa jasango dutenak adieraziz; proiektatutako arauari edo eragindako arauari buruz egindako ebaluazioak (inpaktuari, emaitzei edo bestelakoei buruzkoak), eta arau horrek ukituko dituen herri-administrazioen aurrekontuetan izango duen eragina, arautuko duen gai horretan izango duen eragina nahiz dena delako jarduerarekin esparru horretan izango duena. Era berean, gaia eta proposatuko den arauketaren edukia dela-eta bidezko iritzitako izapide eta txostenak zehaztu beharko dira, eta, behar balitz, xedapenak Europar Batasunean izapideren bat igaro behar duen edo ez.

2.- Eusko Jaurlaritzak, beharrezko diren betekizun eta izapideak hobeto betetzearren, xedapen orokorrak egiteko prozeduraren galdetegiak onartu ahal izango ditu.

3.- Aldatu egin da Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikulua, eta honela idatzita geratu da:

8. artikulua.– Entzunaldia eta jendaurrean jartzea.

1.– Herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean jarri beharko dira.

2.– Herri-interesak eskatzen duenean baino ezingo da utzi alde batera entzunaldiaren izapidea, eta herri-interes hori egiaztatu egin beharko da kasuan-kasuan.

3.– . Interesdunei zuzenean entzunez egingo da entzunaldia, edo, interesdun horiek biltzen edo ordezkatzeko dituzten erakunde eta elkarteei entzunez; erakunde eta elkarte horiek legeak onartutakoak izan behar dute, eta haien helburuek lotura zuzena izan behar dute xedapenaren gaiarekin. Dena den, arrazoitu egin beharko da izapide hori betetzeko aukeretan bata edo bestea hartu izana.

Aipatutako erakunde edo elkarte horiek organoen bidez edo txosten edo berariazko kontsulten bidez parte hartzen badute araua egiteko prozesuan, ez da beharrezkoa izango interesdunei zuzenean entzunaldia ematea.

4.– Entzunaldia eta, hala behar balitz, jendaurrean jartzea, arrazoizko epe baten barruan egingo da, inolaz ere ez hogeitaz egun baliodun baino gutxiagoko epean. Hala ere, hamar egun baliodunera murriztu ahal izango da gutxieneko epea, behar bezala arrazoitutako zioak direla-eta bidezko bada.

5.– Ez dute izapide hori igaro beharko Jaurlaritzaren organoak, karguak eta agintariak arautzen dituzten xedapenek, ez eta Autonomia Erkidegoko Administrazioaren edo haren menpeko edo hari atxikitako erakundeen xedapen organikoek ere, non eta ez duten arautzen herritarrek Administrazioaren eginkizunetan edukiko duten parte-hartzea.

6. – Lege honetan eta Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunari eta Gobernu Onari buruzko Legean ezarritakoaren ondorioetarako, "jendaurrean jartzea" da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 86. artikuluan araututako izapidea.

### **Azken xedapenetako bigarrena. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legea aldatzea.**

ñ) letra erantsi zaio Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3. artikuluari, eta honela idatzita geratu da:

ñ) Eusko Legebiltzarrak kontuan hartutako lege-proposamenak, baldin eta, Ganberako erregelamenduak xedatzen duena betez, Legebiltzarreko Mahaiak hala eskatzen badu, izapidetzeko eskumena duen Batzordearen eskariz.

**Azken xedapenetako hirugarrena. Lege hau indarrean sartzea**

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.